# landeia


ALDIZKARI SINDIKALA - REVISTA SINDICAL

URRIA 2009 OCTUBRE Nº 160. ZENB.


ELA EUSKAL SINDIKATUA



## "LA CRISIS PRINCIPAL ES POLÍTICA, Y POLÍTICAS SON SUS SOLUCIONES"

**3** EDITORIALA / EDITORIAL
Badago nondik heldu

**4** HITZA HITZ / CON NOMBRE PROPIO
Xabi Anzak idazten du: “Estatu-arrazoia indargabetuz”

**6** HITZA HITZ / CON NOMBRE PROPIO
Joseba Villarrealek idazten du: “Flexiseguritatea prekatietatea areagotzeko”

**14** LAN OSASUNA / SALUD LABORAL
Gero eta okerrago Osalanen

**15** INGURUGIROA / MEDIO AMBIENTE
Puerto Pasaia: Ni ecológico, ni necesario, ni viable

**16** LEGEAREN BUELTAK / PAGINAS JURÍDICAS
Banakako kontratazioa, andanan burututakoa

**23** CON PERSPECTIVA / HARIRA
Adolfo Muñoz: “La crisis principal es política, y políticas son las soluciones”













# ELA non

## Konfederazioa

Barrainkua, 13
48009 Bilbao
Tfno: 94 403 77 00

## Eskualdeak

### Araba

**GASTEIZ**
Manuel Iradier, 25
Tel: 945 15 80 76

**AGURAIN**
Calle Fueros, 27
Tel/fax: 945 31 20 26

**OION**
Nafarroa etorbidea 31, behea.
Tel. 945 62 24 40

### Bizkaia

**BILBO**
Barrainkua, 13
Tel: 94 403 77 00

**IBAIZABAL-NERBIOI**

**LAUDIO**
Herriko Plaza 4, 1º dcha.
Tel: 94 403 65 45

**BASAURI**
Antonio Fernández, s/n
Tel: 94 405 58 88

**GALDAKAO**
Muguru, 8, entrepl.
Tel: 94 400 57 57

**IGORRE**
Sabino Arana 22, lonja
Tel: 94 631 54 58

**EZKERRALDEA-KADAGUA**

**BARAKALDO**
Gernikako Arbola, 35-38
Tel: 94 418 02 96

**SANTURTZI**
Maestro Calles 1, bajo
Tel: 94 493 56 59

**ZALLA**
Plaza Carolina Renovales 7, bajo 99
Tel: 94 667 02 88

**ESKUMALDEA**

**AREETA**
Areetako etorbidea, 2
Tel: 94 602 04 50

**DERIO**
Txorierriko etorbidea, 9
Tel: 94 404 31 13

**MUNGIA**
Herri Bide, 8, entrepl.
Tel: 94 674 00 16

**GERNIKA-DURANGO**

**DURANGO**
Askatasun Etorbidea, 5.
Tel: 94 621 76 80

**BERMEO**
Bidebarrieta 9, bajo
Tel: 94 688 05 07

**GERNIKA**
Urkieta, 9, 1º izda.
Tel: 94 627 00 53

**ONDARROA**
Artabide, 12, 1ºC
Tel: 94 683 25 15

**ERMUA**
Zubiaurre, 36, entrepl.
Tel: 943 17 60 15

### Gipuzkoa

**DONOSTIA**
Consulado, 8, behea
Tel: 943 00 50 00

**UROLA-KOSTA**

**AZPEITIA**
Arana Goikoa, 1-2-3, bajo
Tel: 943 81 34 46

**ZARAUTZ**
Bizkaia kalea, 8
Tel: 943 00 05 28

**ZUMAIA**
I. Zuloaga plaza, 1, 3B
Tel: 943 86 01 01

**DEBA**

**ARRASATE**
Otalora Lizentziatua, 22
Tel: 943 79 45 09

**BERGARA**
Ibargarai, 26-30, behea
Tel: 943 76 43 01

**EIBAR**
Bidebarrieta, 30, bajo, primero
Tel: 943 82 04 42

**ELGOIBAR**
Rosario, 25, 2º
Tel: 943 74 42 78

**MUTRIKU**
Alimirante Gaztañeta, 1º
Tel: 943 603238

**OÑATI**
Euskadi Etorbidea, bajo, 3-4
Tel: 943 08 25 00

**ORIA GOIERRI**

**BEASAIN**
Juan Iturralde, 9, 1º
Tel.: 943 08 61 40

**HERNANI**
Argarain, 3, behea, Antziola Auzoa
Tel: 943 33 64 64

**LASARTE**
Zumaburu, 5, trasera
Tel: 943 57 16 44

**LEGAZPI**
Aizkorri kalea, 1º, 1A
Tel: 943 73 18 18

**TOLOSA**
San Francisco Ib., 13
Tel: 943 69 83 14

**URRETXU**
Labeaga, 33, behea
Tel: 943 03 63 91

**OARSO-BIDASOA**

**ERRENTERIA**
Pza. Koldo Mitxelena, 2, bajo
Tel: 943 00 01 13

**IRUN**
Paseo Colón, 27, 1º
Tel.: 943 63 84 70

**BERA**
San Esteban, 13, bajo
Tel/Fax: 948 63 07 92

### Nafarroa

**IRUÑEA-PAMPLONA**
Iturralde y Suit, s/n (frente al 10).
Tel: 948 00 79 30

**ALTSASU**
La Paz, 3, Entr.
Tel/Fax: 948 46 73 38

**BERA**
San Esteban, 13, bajo
Tel/Fax: 948 63 07 92

**CORELLA**
Urb. San Juan, 1, bajo
Tel: 948 40 10 72

**LIZARRA**
C/ Fray Diego, 13, bajo
Tel/Fax: 948 54 67 70

**PERALTA-AZKOIEN**
Avda. La Paz, 9, 1º izda.
Tel: 948 75 10 17

**SAN ADRIAN**
Ctra. de Estella, 32, bajo
Tel: 948 69 61 59

**SANGÜESA**
Mediavilla, 4
Tel: 948 43 01 08

**TAFALLA**
Plaza Cortés 3, bajo
Tel/Fax: 948 70 16 60

**TUDELA**
Fernando Remacha, 4, 1º
Tel: 948 02 62 02

**LODOSA**
Paseo Central, s/n
Tel: 948 69 42 12

landeia

ERREDAKZIO TALDEA EQUIPO DE REDACCIÓN

**Zuzendaria - Director:** Patxi Agirrezabala.
**Koordinatzailea - Coordinadora:** Nerea Ispizua.
**Idazlariak - Redactores:** Gorka Quevedo, Juan Antonio Korta, Xabi Anza, Julene Gabiola, Bizente Harriola, Janire Dominguez eta Ainhara Plazaola.
Itzulpen lanak: Bixen Fernández Amezaga.
**Argitarazle - Edita:** ELA, Euskal Sindikatua. Barrainkua 13, Bilbao. Tfno: 944037700.
**Email:** landeia@elasind.org

[01]

EDITORIALA EDITORIAL

# BADAGO NONDIK HELDU

Ezusteko galanta hartu zuten zenbaitek urriaren 17ko manifestazioaren oihartzuna eta Donostiako kaleetan erakutsitako atxikimendu maila ikusi eta gero. Lehenengoz, manifestaziora deitzeko izandako aurrenekotako arrazoia, atxiloketak salatzea alegia, ondo asko bete zen eta elkartasun uholde ikaragarria nabari zen Kontxako pasealekua gainezka hartu zuen jendetzaren aurpegi eta eztarrietan. Euskal gehiengo sindikalak bide eta gorputz eman dio makina herritarren elkartasunezko mezua plazaratzearen beharrari. Eta elkartasunaz gain, baita ere, estatuak ezartzen duen jazarpenaren aurrean desadostasuna eta salaketa plazaratzeko aukera egokia izan da manifestazio hau. Abaguneak eskatzen duen erantzuna bideratzen eta ematen jakin izan du gehiengo sindikalak, barne eztabaidak alde batera utziaz eta erantzukizunez jokatuz.

Jasaten ari garenarekin zaila egiten da bat ez etortzea manifestazioaren goiburuarekin: *Askatasunaren alde. Eskubide guztiak guztiontzat*. Halaxe ulertu zuten nagiak astindu eta Donostiara bertaratu ziren guztiek. Ezustekoa eta ondoeza ere sortu du bertan egon zirenen partaidetzak, jende kopuruaren aldetik eta nortzuk ziren ikusita ere. Nolako tenorean agertu ziren egun berean Patxi Lopez eta Rubalcaba jaunak nahikoa da antzemateko demokraziari dioten begirune eskasa eta, era berean, honelako bateratzeak ekartzen dien urduritasuna.

**La manifestación del 17 de octubre -convocada por la mayoría sindical bajo el lema *Askatasunaren alde. Eskubide guztiak guztiontzat*- reunió a decenas de miles de personas en Donostia, escenificando las enormes potencialidades de una suma civil y democrática de los y las soberanistas**

Temati dabiltza estatuko indarrak herri honen nortasuna desagerrarazi nahian, horretarako eskura dituzten baliabide guztiak –eta asko dira– horretara aplikatzen direlarik. Berdin dio tartean eskubideak, eskubide guztiak, urratu behar badira ere; azken finean estatu arrazoia nagusitu behar baita. Are eta gehiago estatuak badakienean atxiloturiko pertsonak bide jakineko prozesu baten urratsak garatzeko ezinbesteko erreferentziak direla. Jazarpeneko erabaki hauek etekin emankorrak bereganatzeko estrategia eta itun politiko baten baitan daudela inor gutxik jartzen du duda-mudan.

Dena den, aurrekoetan gertatu den bezala, oker ibiliko ginateke jirabira honetatik haratago begiratuko ez bagenu. Jakin badakigu zein den estatuko itunaren estrategia. Ez da berria ez eta berritzailea. Hala bada, utz dezagun bakean. Kritika eta salaketak egitekoa beharrezkoa bada, demokraziaren aurkako bere izaera agerian uzteko, hori bezainbesteko beharra dugu geure buruari begiratzeko. Gure herriarekiko estatuak zer nahi duen, zer erabaki duen, eta zer egiteko prest dagoen aspalditik ikasiak gaude.

Kanpotik eratorritako arazoei aurre egiteaz gain, gurea da arazoa. Gure ustetan bide eta prozedura zibil eta demokratikoak jorratu behar ditugu subiranistek eraginkorrak izan nahi badugu. Horregatik diogu jardun armatuari bukaera eman behar zaiola. Hori da gure aukera bakarra aurrera jarraitu nahi badugu.

Zilegizko lehia politikoaz aparte, era dialektikoan abertzaleen artean lankidetza esparruak zehaztu behar ditugu eta horiekin batera partekatutako gutxienekoak adostu. Horrek norbera eta bakoitzaren nahia zehaztuko du bat egitearen alde dagoen ala ez. Hausnarketa horretan gehiengo sindikalak ekarpen handia egin dezake, bai edukietan eta baita prozesu subiranistari indar eta legitimazioa ematearen aldeko apustuan. Ziur gaude jende xehearen beharrizanak identifikatu eta justizia soziala lehentasunen artean jartzeak prozesuari behar duen erakargarritasuna emango liokeela. Erakargarritasuna eta atxikimendua. Horretan gaude konprometiturik eta, gehiengo sindikalarekin bat, datozen hilabeteak lan horrek beteko du agenda.

[02]

HITZA HITZ CON NOMBRE PROPIO



**Xabi Anza**
Formakuntzaren arduraduna

# ESTATU-ARRAZOIA INDARGABETUZ

ELAko Nazio Batzordeak agiri bat plazaratu du, bertan egoera politiko eta sozialaren inguruko azterketa eguneratzen duelarik. Klase-erakunde sindikal abertzale bati dagokion moduan, autogobernuaren gorabeherak, eta gure herrian osasun demokratikoa eta oinarrizko eskubideak zertan diren aztertzea da bere xedea. Langile-klasearen eskubideak defenditzeko ahalik baldintza onenetan kokatzearren ELAk berriro baiesten du sindikalismo autonomoaren aldeko apustua, politikari eta finantzei dagokienez. Sindikatua libre hitz egin nahi du, politika orokorrari buruz ere, klase interesekin baitago lotuta nazio eraikuntzan egiten duen ekarpena. Eta klase-interes horiek inongo egoeratan bigarren mailara pasa ez daitezen lana egiten du.

**Transbertsalitatearen erretorika.** Estatu-politika Euskal Herrian duen eragina aztertzen hasten da dokumentua. Horren inguruan, eta azaroko XII Kongresu konfederalak ohartarazi zuen moduan, hausnarketak dio ezinezkoa dela estatuarekiko itun politiko baten baitan, Espainiako Konstituzioak, Estatutuak eta Foruaren Hobekuntzak osatzen duten blokean aldaketak egitea. Urtetan ikusi den bezala, bloke horren defentsa (PPk eta PSOEk egiten dutena alegia) *estatu-arrazoi* bilakatu da Euskal Herrian, eta horrek Espainiako botere guztien (exekutibo, legegile eta judizial) jardunean salbuespen maila handia eragin du. Gainera, krisian jarri dute inguruko estatuetan ohiko diren gutxieneko demokratikoak ere, berme juridiko zein politikoak (herritar, talde eta erakundeenak), eta are giza-eskubideak ere.

Halabeharrez konklusio batera iristen da agiria: behin betiko egitatetzat jo behar dela esparru konstituzionala aldatzeko aukerarik ez dagoela estatuko bi alderdi politiko handiekin. ELAk uste du errealitate hau onartzeko premian gaudela, gero hortik ondorioak atera eta indar abertzaleon definizio estrategikoa egiteko, burujabetzaren inguruan politika errealista bati ekin ahal diezaiogun. Transbertsalitatea eskatzen da, beraz, soilik españolistak gutxiengo diren tokian, ez ordea beraiek nagusitasuna duten eremuetan.

**Espainia uniformea, arlo laboralean ere.** PP eta PSOEren arteko estatu-itunak ahal duen guztia egiten du (Lehendakari berria jartzeraino). Helburua ezaguna da, espainiar nazioa ez den beste edozein erabakigune eragoztea eta euskal prozesu autonomikoa armonizatzea, espainiar nazionalista askoren ustez 'eskutatik alde egin baitzien'.

Horregatik, ez da harritzekoa EAEko egungo Jaurlaritzak uniformatze asmo horrentzako oztopo diren autogobernuko atal eta erakundeak berrikustea. EAEko Jaurlaritzak egin duen hilabete gutxi hauetako ibilbidea jakingarria da uniformatzeko borondate horri buruz, baita lan munduan eta esparru sozialean ere. Honi buruz, agiriak, zenbait adibide aipatzen ditu: elkarrizketa soziala izenekoa, krisi ekonomikoaren kudeaketa, enplegu-politika aktiboak eskuratzea eta Osalanen gertatutakoa. Eta horiekin batera, duela gutxi iragarri den negoziazio kolektiboaren erreforma.

## Es imposible cualquier reforma constitucional de la mano de los dos principales partidos políticos del Estado



Lan munduari bete-betean eragiten dion uniformatze prozesu honi buruz, ELAk berriz adierazi nahi du berak ordezkatzen duen sindikalismoak eskubide osoa duela euskal langileentzako hainbesteko garrantzia duen gai honi buruz bere posizioa agertu eta eztabaida politikoan sartzeko. Horregatik, lanean jarraituko du gertatzen denari adi egon, salatu eta mobilizatzeko prestutasunez, batetik, eta gizarte zein lan-esparruarekin zerikusia duen orori buruzko proposamenak eginez, bestetik.

Estatu-politikak erabaki du bere helburuak Euskal Herrian lortzeko ez duela inolako eragozpenik izango demokrazian aintzat hartu beharko liratekeen joko-araurik funtsezkoenak ere ez errespetatzeko. Eta hala jokatzen du, adibidez, arerio politikoak desagerrarazteko, Lehendakaritzara iristeko, lan-harremanak uniformatzeko edota klientela-sistema bat eratzeko (beronen helburua politika neoliberalak laguntzen dituen sindikalismoa mantentzea delarik). Halaber, babesa lortu nahian gutxiengoarekin egiten den paktismo soziala EAEn ere jarri dute martxan, Nafarroan bezalaxe; gehiengo demokratikoen arabera, ordea, horrelakorik egitea ezinezkoa litzateke.

**Eskubide eta askatasunak, gero eta mugatuago.** Agiriak azpimarratu nahi du *Borroka antiterrorista* deiturikoa aitzakia gisa erabiltzen dela oinarrizko askatasun eta eskubideak murrizteko. Egia da ETAren ekintza armatuak erabili egiten direla jende askoren eskubideak murriztu eta oinarri politiko batzuk finkatzeko. Ekintza armatuak argi arbuiatuagatik ere, estrategia errepresibo hori ez da zertan zuritu.

Horren adibide garbiak emateko 'Egunkaria kasua' aipatzen da edota aspalditik datorren espetxe politika. Halaber, eta ger-

## El Estado ha decidido romper con las reglas de juego de la democracia para conseguir sus objetivos en Euskal Herria

tatzen diren urraketa guztiak jasotzeko asmorik gabe, ELAko Nazio Batzordeak zenbait auzien aipamen berezia egiten ditu zorigaiztoz bizi-bizi daudelako. Horien artean: Herrizaingo sailak presoen argazkiak kaleetatik kentzeko hartu duen erabakia; Espainiako Barne-ministroak iragarri zuen erabaki politikoa: bere burua ezker abertzale izendatzen duen sektoreko inongo sigla politikorik ez omen du legeztatuko, ETAren jarduna gaitze-tsiagatik ere; baita ere salatutako gertakari batzuk: Jon Anzaren desagerpena edota Alain Berastegi gazte nafarrak, besteak beste, salatu zituen bahiketa eta torturak...




ELAk gainera, Auzitegi Nazionalaren azken erabakien erabateko intentzio politikoa salatzen du, hala nola, Anoetako ekitaldiagatik Arnaldo Otegi, Joseba Alvarez eta Joseba Permachen aurkako ahozko auzibideari ekitea, edota joan den urriaren 13an ezker abertzaleko buru ezagunak atxiloketa eta espetxeratzea –euren artean LABeko idazkari nagusi ohia–.

**Instituzioetako nazionalistek talka ez egitea erabaki dute.** Abertzale instituzionalen kokapen politikoa interpretatzeko saiakera egiten du ere agiriak. Argigarria izan zen ELArentzat EBBak 2009ko martxoan, hauteskundeak igarota, egin zuen eskaintza. Agiri horretan ezikusiarena egiten zaio PSEk ezarri nahi duen estatu-arrazoiari eta, besteak beste, 'euskal gizartearen aniztasun politikoa' aitortzen du, 'Eusko Legebiltzarrean ordezkapena lortu duten aukera politikoetan islatzen dena'.

Gure aburuz, esparru politikoa gainditzeko aldarrikapenak alde batera utzita, benetan abertzale instituzionalen ikurra estatu-logikarekin inongo talka dinamikarik ez eramateko borondatea da. Honekin batera, ELAko Nazio Batzordeak ohartarazten du euskal ugazaba eta enpresaburuek, -boterean egon den nazionalismoak 30 urtez egin duen kudeaketaren onuradun nagusiek, alegia- zenbateko naturaltasunez ikusten dituzten erakunde autonomikoetan gertatzen diren aldaketa politikoak. Ez zitekeen besterik espero. Patronalak berme osoa dauka gaur gobernatzeko aukera duten alderdi guztiekin. Areago, indar horien arteko lehia bakarra ugazaben interesen zaindaririk irmoena zein den erakustea da.

Honi buruz, bestalde, ohartarazi nahi du aldundien esparruko ekimenetan maila berri bat ezarri dela Gipuzkoa aurrerarekin: ez da ohiko lobby bat, bera osatzen dutenak bai baitziren lehenago ere. Orain, ahaldun nagusiak bultzatuta, Gipuzkoako botereak (finantzak, merkataritza, patronalak eta kooperatibak, politika...) antimugimendu sozial moduan eratu dira, sor daitekeen herritarren oposizio antolatuari aurre egiteko, bai azpiegitura handietan (Pasaiako portua kasu), bai zerbitzu sozialen pribatizazioa eta langileen esplotazioa salatzen duenean, batik bat hirugarren adineko jendearentzako zerbitzuetan.

## La patronal tiene la total complicidad de todos aquellos partidos políticos con opciones de gobernar

**ENAMek apustu politiko hutsa egin behar du.** Askotan esan den moduan, ENAMen baitan, orain artean behintzat estatuarekiko negoziazio batean armen auzia eta irtenbide politikoa batera konpontzeko asmoak erabat baldintzatzen du garatu beharreko prozesua. Horren inguruan, ELAren posizioa jakina da: borroka armatuaren amaiera elkarrizketa politiko baten baitan etor baliteke ere, ENAMek lehenbailehen hartu behar ditu erabakiak, baldin eta aipatzen dituen aliantza estrategikoak eta –estatuaren jokabidea ikusita– parte hartze politiko normalizatua izaterik nahi badu. Prozesu honetarako bermeak ezin zaizkio –iraganean helburua izan den moduan– beste inori leporatu.

Behar beharrezkoa da armak alde batera uztea, askotan aldarrikatu den bezala. Gainera, ELAren aburuz, inongo erakunde armatuk ezin du bilakatu gizarte antolatuaren lorpen eta hutsegiteen epaile, eta are gutxiago galaraz diezaioke hari lehia politikoa baldintza ahalik onenetan egiteko aukera. Gainera, ETAk ezin du gehiago estatuaren politika errepresibo eta antidemokratikoaren aitzakia baliatu agortuta dauden estrategiei eusteko, hain zuzen politika errepresibo hori legitimatu eta indartu egiten baitituzte.

Zoritxarrez, badirudi soilik ETA ez datorrela bat bide militarra agortuta dagoelako diagnostikoarekin; jarrera horrek zerbaiti on egitekotan estatu-itunari eta legez kanpo jarritako esparru sozial eta politikoaren aurkako razziari egiten dio, ez beste ezeri.

## Un proceso soberanista tendría mayor fuerza y legitimidad en la sociedad si entre sus ingredientes están los temas que importan a la clase trabajadora

**Konklusio 'garaileak' atera behar dira.** Agiriak konklusioak atera nahi ditu. Eta aipatzen dira batzuk.

Lehenik, Nazio Batzordeak nabarmendu egin nahi du aldaketa politikoa benetan lortu nahi duen edozein estrategiak bere erreferentzia transbertsalitate delako horretatik kanpo bilatu behar duela. Izan ere, hitz hori erretorika besterik ez da, gure herria estatuaren tranpaz betetako joko-arauetara makurtzea eskatzen duena, bere sustatzaileek indar subiranisten bat egiteko ahalegin oro zapuzteko edozertarako prest dauden artean. Subiranistek era zibil eta demokratikoan bat egitea da gure aukera bakarra.

Batzeko aukera horri dagokionez, bereizi egin behar da esparru politikoak lortzeko lehiatik eta erakundeak gobernatzeko osatzen diren aliantzetatik. Posible izan behar du, modu dialektikoan, indar abertzaleek lankidetza-esparruak eta partekatutako minimoetan oinarritutako posizioak topatzea. Horrek aurrera egitea posible egiten du, eta gainera agerian uzten du bat egitearen alde nor dagoen eta nor ez. Hartara, ezin da inola ere baldintza gisa eskatu inor baztertzea.

Halaber, ziur gaude prozesu subiranista batek indar eta legitimazio handiagoa eta gizartean oihartzun zabalagoa lortuko duela bere osagaien artean klase xeheentzako justizia soziala badauka, batik bat kolektiborik zigortuenentzat (gazteak, etorkinak, emakumezkoak...). Hau da, gainera, gure bokazioa.

Azkenik, esan beharra dago ez dela aldaketa politikorik iritsiko gizarte-politikak aldatuko borroka eta mobilizaziorik gabe. Horixe da benetako erronka itun sozialean ez urtzea eta autogobernuaren usteltzea dela-eta ez isiltzea erabaki duen sindikalismoarentzat: bere oinarria aktibatzea eta beroni joera ideologiko, mobilizatzaile eta errebindikatibo nabarmena ematea.

03

HITZA HITZ CON NOMBRE PROPIO



**Joseba Villarreal**
Negoziaketa Kolektiboko arduraduna

# FLEXISEGURITATEA PREKARIETATEA AREAGOTZEKO

Patronalarentzat lan merkatuaren malgutasuna areagotzea eta soldatak murriztea dira krisi honetatik ateratzeko errezeta nagusienetakoak. Egunak joan eta egunak etorri, hedabidez hedabide eta hitzaldiz hitzaldi, hau errepikatzen ari dira lau haizetara, nahiz eta beraiek ere jakin badakiten aldi baterako kontratazioa eta soldata baxuak izan direla krisiaren ondorio larriak areagotu dituztenak. Hego Euskal Herrian eta Estatu Espainiarrean langabezia Europan baina askoz ere gehiago haztearen arrazoiak hortxe daude, besteren artean.

Patronalaren diskurtso honek jarraitzaile sutsuak ere baditu. Esate baterako, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailburuak errezeta berdinak azaldu zituen egunkari talde bati egindako elkarrizketa batean. Patronala eta Jaurlaritza alde berdinean kokatzea ez da berria, aspalditik ari baitira elkarlanean elite ekonomikoen interesak defendatzeko: fiskalitate politika eta iruzur fiskala, kontratazio ebentualetarako dirulaguntzak eta kontratazioan ematen den lege iruzurra bermatzen, zerbitzu publikoen pribatizazioan eta abar. Beraz, lehengo lepotik burua.

**Orain, *flexiseguridad* nahi dute.** Hala ere, Hego Euskal Herrian, patronala, CONFEBASK eta CEN eta hauen kide diren herrialde ezberdinetako patronalek, –CEBEK, SEA eta ADEGIk alegia–, oraindik ere gehiago nahi dute. Azken egun hauetan ADEGIk plazaratu berri du **flexiseguridad** izeneko estrategia edo helburu berri bat. Beti egin ohi duen bezala, Europatik interesatzen zaiona bakarrik gurera ekartzen saiatzen dira; kasu honetan gipuzkoako patronala Danimarka eta Holandara begira jarri zaigu.

ADEGIren iritziz, flexiseguritatea da egungo lan merkatuaren malgutasun eskasa bere onera ekartzeko sistema eta tresna. Hau gutxi balitz, ADEGIk bizitzeko era bat bezala definitzen du flexiseguritatea. ADEGIk Europara begiratzen duenean ez du fiskalitatea, heziketa iraunkorra edo babes sozialaren inguruan erreparatzen, bakar bakarrik malgutasun gehiago emango dion tresna ikusten du. Begirada selektiboa deitzen zaio honi, beste era batera ez deitzeagatik.

## Condenar de por vida a los trabajadores/as a la precariedad y recortar los salarios son las recetas de la patronal para salir de esta crisis

ELArentzat flexiseguritatea Hego Euskal Herrian edo Estatu Espainiarrean aplikatzea, lanpostu prekariotik lanpostu prekariorako bidea bermatzea besterik ez da. Hau da, langile jendearen gehiengoak bizitza osorako lanpostu duin bat izateari uko egin beharko lioke. Honela, lanera sartzerakoan aldikako eta prekarioa da langilea; urte batzuk egin eta gero malgua behar du izan merkatuaren estuasunei egokitzeko, eta lan merkatutik irtetean malgua ere, bere laneko bizitza osoan sortutako prestazioak jasotzerakoan. Flexiseguritate hitzak bi parte ditu, flexibilitatea eta seguritatea. Sistema honek flexibilitatea automatikoki bermatzen duen bitartean, segurtasunarekin ez da antzekorik gertatzen.

Beste era batera esanda, langabeziara doan langileari nork bermatzen dio langabezian dagoen bitartean prestazio duinak izatea? Nork bermatzen dio heziketa iraunkor eraginkorrean parte hartzeko eskubidea? Nork bermatzen dio bera eta bere familia bizitza duin bat izateko babes sozial nahikoa? Hego Euskal Herriko patronalari horrelako tresna bat eskaintzea tximu bati pistola eskuetan jartzea baina arriskutsuagoa izan daiteke...



**Demagogia hutsa da** Europara begira jartzea bere eredua honuntza ekartzeko, are eta gehiago neurri hauen eraginkortasuna herrialde horietan ere kolokan dagoenean. Demagogia da hemengo errealitatea eta hangoa bere osotasunean alderatu gabe hemen flexiseguritatearen onurak saldu nahi izatea; edo ados al dago patronala Danimarka eta Europako beste estatu batzuetan dagoen presio fiskala ere hemen aplikatzearekin? Edo bizitza osorako kondenatu nahi zaigun prekarietatea onartzeaz gain langileei al dagokigu horren kostua ordaintzea? Azken honetarako ez gaude prest eta behar beste borrokatuko dugu.

[04]

# GUTUNAK CARTAS

Esta sección pretende ser una tribuna abierta a las opiniones de nuestros/as afiliados y afiliadas sobre la actualidad económica, social y laboral. Aquéllos/as que lo deseen deben enviar sus cartas a la siguiente dirección: Landeia, Cartas de los lectores. Barrainkua 13, 48009 Bilbao.

## Krisia eta aparteko orduak

Orain dela gutxi irakurri nuen INEMek aparteko orduak sartzeko eskatu diela bere enplegatuei, pertsonal gehiago ez kontratatzeko. Eta hilean 18 ordu gehiago borondatez sartuz gero, Corbacho ministroak trukean 300 euro eskaintzen die. Ordu horiek jendaurreko arreta emateko dira, urtebeteko epean, eta metatutako lankarga arintzeko.

Ez oso aspaldian egunkari batean krisialdiei buruzko erreportajea ikusi nuen, eta han ere aipatzen zen krisialdien ezaugarri hori: aparteko orduak ugaltzea.

Kasu bietan kontratazio gehiagorik ez egitea da helburua. Hau da, bai patronal publikoak, bai pribatuak ez dute bat ere interesik enplegua sortzeko; justu kontrakoa, langabeentzako laguntzak ematea nahiago dute, lan duina baino.

Eta, bitartean, hemen ez da ezer gertatzen.

Oraingoa bezalako egoeretan inoiz baino beharrezkoagoa da borrokatzea enplegu eta soldata duinak lortzeko, eta lanaldia murrizteko; bide batez, enplegua sortuko da-eta. Baina ez alderantziz.

**U. Pérez.** Bilbo

## Ése no es el camino

Con respecto a la operación policial del pasado 13 de octubre –en la que detuvieron a Otegi, Rafa Díez y otros miembros de la Izquierda Abertzale– ha quedado patente que quienes la urdieron e impulsaron saben perfectamente cuál es el *delito* que han cometido los detenidos.

El señor Pérez Rubalcaba, en rueda de prensa del 14 de octubre, proporcionó un titular esclarecedor en este sentido: "Va a pasar una y otra vez. Mientras haya violencia ningún radical va a poder hacer política en este país, la Policía se lo va a impedir sistemáticamente". Luego, confirmado queda, los detuvieron por hacer política.

Desde el Gobierno español se dice que sólo aceptarán iniciativas políticas, pero siguen deteniendo a políticos. Una vez más, la (sin)razón de Estado se impone sobre el sentido común.

Una vez más, el Estado español ha mostrado sus vergüenzas, al poner en evidencia su incapacidad y su falta de voluntad para resolver democrática y pacíficamente el conflicto vasco.

En el plazo de 72 horas hemos sido testigos de detenciones y encarcelamientos de políticos por parte de policías encapuchados; de una concentración de Falange en Iruñea, saludos nazis y consignas fascistas incluidas, haciendo gala de una miserable impunidad que los ampara; y como guinda de este pastel, hemos podido escuchar las declaraciones de un Ministro del Interior dando lecciones ético-morales sobre la democracia a la española.

Aunque la naturaleza y entidad de estos hechos sean totalmente distintos, ya que la operación político-policial responde a una cuestión de Estado y la manifestación de la Falange resulta a su lado algo incluso anecdótico, lo cierto es que la perspectiva de estos hechos tan cercanos en el tiempo se antojan como una fotografía que revela la pésima calidad democrática del Estado español. Y lo triste es que el álbum está rebosante de fotografías de este calado.

Aunque resulte absurdo repetirlo, por lo básico de su planteamiento, debemos reivindicar una vez más que en un Estado democrático no puede ser causa de detención y procesamiento la práctica de un Derecho tan fundamental como lo es desarrollar una actividad política. Ya que, precisamente, la actividad política desarrollada en libertad debería ser la base de un verdadero sistema democrático.

Lo que se está persiguiendo con estas operaciones es impedir el desarrollo de vías políticas, o dicho de otra forma, la libre expresión de ideas a través de vías políticas, que lo único que consiguen es perpetuar un conflicto político, hundirlo un poco más en la oscuridad.

Por todo ello, o mejor aún, en contra de todo ello, y por una solución democrática al conflicto que padecemos, todos los demócratas deberíamos involucrarnos en dar una respuesta de altura ante semejante situación, arrojar luz frente a tanta oscuridad y represión, y contribuir en dar pasos firmes hacia una solución democrática del conflicto, frente a la receta de más represión y más conflicto que plantea el Estado español.

**Mikel Zabaleta.** Iruñea

## ZER BERRI
## ACTUALIDAD

› JUAN ANTONIO KORTA

## KONFEDERAZIOA

### ELA, contra una transferencia 'coja'

ELA ha criticado la transferencia de las políticas activas de empleo a partir del 1 de enero del 2010 en los términos hechos públicos por el lehendakari Patxi López. Para ELA, la renuncia a gestionar los recursos económicos de las políticas activas de empleo relacionados con las cotizaciones sociales es una decisión de enorme gravedad y trascendencia política, y no respeta el Concierto Económico.

De esta manera, se van a limitar a gestionar lo que se decida en Madrid, como otra comunidad autónoma más. Eso supone, además, la aplicación de unas políticas que han llevado al Estado español a las tasas de paro más altas de toda la UE.

### ELA, fuera del Consejo de Administración de EITB

PSE-EE, PP y PNV han alcanzado un acuerdo para designar los miembros del consejo de administración de EITB. El único sindicato presente será CCOO, que sustituye a UGT. Para ELA, es de extema gravedad que la representación política actúe así, adulterando espacios de representación que no son suyos, condenando al ostracismo a organizaciones con un grado de legitimación que, en el caso de ELA, sobrepasa el 40% (supera con creces la suma de CCOO y UGT).

Este acuerdo sólo se puede entender desde posiciones políticas antidemocráticas que han decidido otorgar representación, exclusivamente, a quienes comparten su proyecto político, social y económico.

### Una marea humana reivindicó en Donostia una salida democrática para el conflicto vasco



La manifestación convocada por los sindicatos ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE e Hiru el 17 de octubre contra las detenciones de miembros de la izquierda abertzale fue secundada por decenas de miles de personas, que recorrieron las calles de Donostia bajo el lema *Askatasunaren alde. Eskubide guztiak guztiontzat*.

Al término de la protesta, los secretarios generales de ELA y LAB, Adolfo Muñoz *Txiki* y Ainhoa Etxaide, respectivamente, leyeron un comunicado en el que, además de pedir la puesta en libertad de las personas encarceladas por su actividad política, mostraron su preocupación "ante la deriva democrática, autoritaria y represiva del estado español". Asimismo, estas organizaciones reafirmaron su compromiso con una solución democrática para el conflicto vasco y valoraron muy positivamente que "por encima de las cosas que nos diferencian hayamos sido capaces de compartir el análisis que nos ha llevado a estar aquí".

### Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuen murrizketaren kontra

Oraindik aurkeztu ez dituen arren, Eusko Jaurlaritzak 2010. urteko aurrekontuen nondik norakoen inguruko hainbat xehetasun eman ditu jakitera. Eta, orain arte entzundakoa, behintzat, oso kezkagarria da. Izan ere, Patxi Lopezek aditzera eman duenez, aurrekontuen gastua %6 jaitsiko da.

Lopez jaunak dio defizitak gehienezko muga daukala ezarrita, eta 2010. urterako Barne Produktu Gordinaren %2,5 dela kopuru hori. Gezurra da hori, ez dago halako mugarik. Jaurlaritzak Estatuko Zerga eta Finantza-Politiken Kontseiluak ekainaren 17an hartutako erabakia jartzen du aitzaki bezala, baina iruzurra egiten du.




## Gehiengo sindikala kalera krisiaren aurka

Greba orokorra egin eta lau hilabetera, ELA, LAB, ESK, EILAS, EHNE eta Hiru sindikatuek deituta manifestazio jendetsua egin zen Donostian irailaren 22an. Gehiengo sindikalak greba orokorra eragin zuten arrazoiak indarrean jarraitzen dutela adierazi zuen eta enpresaz enpresa aurkeztuko duten dekalogoaren berri eman zuen. Hurrengo mobilizazioak Gasteizen eta Iruñean izango dira, azaroaren 13an eta abenduaren 11an, hurrenez hurren.

Adolfo Muñoz *Txiki*, ELAko idazkari nagusiaren hitzetan, mobilizazioa elkarrekin egiteak balio handia dauka. “Hemen bildu den sindikalismoak ez dio botereari men egiten; bere erabakiak ez ditu onartzen. Ez gobernuetan, ezta aldundietan ere. Greba orokorreko egunean esan genuen: gobernuetan alderdiak alda daitezke, baina zoritxarrez politikak ez dira aldatzen; alternantzia badago, baina alternatiba sozialik ez”.

## ELAk salatu egin du Etxerat kriminalizatzeko asmoa

Herrizaingo sailburu den Rodolfo Ares jaunak iragarri duenez, espediente bati ekin diote Etxeraten jarduna eteteko asmoz, eta hori ilegalizazioaren ataria litzateke. Horretarako aitzakia besterik ez dira aipatutako arrazoiak, hots, bortizkeriari legitimazioa kentzea eta biktimenganako begirunea bermatzea.

ELAren iritziz, horrela jokatuta iritzi publikoari ezkutatu egin nahi diote presoen eskubideekiko elkartasunaren zergatia, eta bere senideen funtsezko eskubideak defenditzen dituen kolektibo baten egitekoa. ELAren ustez, Etxerat kriminalizatzeko asmoa gizarte honetako eskubide zibilak urratu eta jende asko eta asko baztertzen duen politikarekin segida logikoa da.

## Menos dinero para luchar contra la siniestralidad

ELA y LAB han denunciado el nulo compromiso del Gobierno Vasco en materia de seguridad y salud laboral en el Consejo General de Osalan, celebrado el 30 de septiembre. A su vez, exigieron que se deje sin efecto el convenio de colaboración firmado entre Osalan y la Fundación Laboral de la Construcción.

Estos sindicatos han denunciado que para el 2010 se esté planteando un recorte del 8,6% en el presupuesto de Osalan. “La inversión en seguridad y salud laboral no puede reducirse por una eventual falta de recursos públicos, cuando precisamente en esta coyuntura muchas empresas están descuidando la prevención en un intento de recortar gastos”.

## Nafarroako Lan Osasun Institutuaren utzikeria agerian

ELA eta LAB sindikatuek Nafarroako Lan Osasun Institutuaren utzikeria salatu dute. Lan Osasun arloaren arduraduna den Leire Txakartegiren esanetan, erakunde hau UGT eta CCOO sindikatuen finantziaziorako tresna da. Hori argi geratu zen joan zen irailaren 23an egindako bileran.

Eskandalagarria da informazio eza. Kontseiluak ez du inolako eztabaidarik bultzatzen. UGT eta CCOO dira diruarekin dituzten asmoen berri ematen dutenak, inolako zehaztapenik eta gobernuaren jarraipenik gabe. Eredu horrekin ados ez dauden sindikatuak baztertu egiten dituzte, beti ere helburu argi batekin: prebentziora bideratu beharreko dirua euren artean banatzea, hain zuzen.

# FEDERAZIOAK

## No al cierre de Kennametal

La plantilla de Kennametal, de Gasteiz, continúa con las movilizaciones en contra del cierre anunciado por la multinacional alemana. Nos encontramos ante un claro ejemplo de deslocalización y de paulatino abandono por




## En dos meses, 12 muertos en accidente laboral

Los accidentes laborales mortales no disminuyen. Los dos últimos meses han sido especialmente dramáticos. Entre setiembre y octubre 12 trabajadores/as han fallecido en accidente laboral, lo que eleva a 67 el número de personas que han dejado la vida en sus puestos de trabajo ante la inhibición de la administración y la ausencia de medidas de prevención en las empresas. En la foto, concentración realizada el 9 de octubre ante la Diputación de Bizkaia tras tener lugar, la víspera, dos accidentes mortales.

parte del a dirección, que ha presentado un ERE ante la administración. La empresa cuenta con 49 trabajadores y trabajadoras.

## ELA, contra el ERE de Nervacero

ELA no ha suscrito el preacuerdo alcanzado por los sindicatos UGT y CCOO en Nervacero para la aprobación del Expediente de Regulación de Empleo por no recoger garantías suficientes para el mantenimiento del empleo en la empresa y porque el complemento durante los 110 días de aplicación del ERE no supera el 85% del salario.

## ERE sin acuerdo en Precicast

La empresa Precicast, de Barakaldo, perteneciente al grupo aeronáutico ITP, ha presentado un Expediente de Regulación de Empleo para 237 trabajadores y trabajadoras por un período de un año, sin acuerdo con el comité de empresa. En el periodo de consultas, la dirección de la empresa no ha demostrado que se haya producido un descenso de ventas y de falta de pedidos.

## Jornada de paro en Cie-Mecauto contra los despidos

Los 68 trabajadores de Cie-Mecauto, de Gasteiz, pararon el 24 de septiembre en protesta contra la política de reducción de empleo llevada a cabo por la dirección de la empresa los últimos meses.

Esta planta estaba formada por 112 trabajadores en julio de 2008. La empresa procedió, entre julio y noviembre de ese mismo año, al despido de 29 operarios así como al cierre de la planta de forja, lo que supuso la pérdida de otros 15 puestos de trabajo. Mientras tanto, la dirección ha procedido al traslado de once máquinas a diversas plantas del propio grupo CIE-Automotive y a la contratación de personal de ETTs.

## ERE en Tuboplast

La dirección de Tuboplast Hispania, con un plantilla de 450 personas y dedicada a la fabricación de envases de plástico, ha presentado un expediente que afecta a 295 operarios, que dejarían de trabajar 46 días los próximos seis meses. En opinión de ELA, este ERE sólo pretende incrementar la flexibilidad de la plantilla, ya que el descenso de producción del 20% se solventó con la supresión del cuarto turno.




## Stadler-ek 19 langile kaleratu nahi ditu

ELAk Oñatiko Stadler enpresaren zuzendaritzaren jarrera salatu nahi du. Zuzendaritzak 19 langile kaleratu nahi ditu; helburua lortu ezean enpresa ixtearekin mehatxatu du. Zuzendaritzak ez ditu aintzat hartu langileen proposamenak (aurreerretiroak, borondatezko bajak sustatzea...). Badirudi aukera hauek ez direla balekoak enpresarentzat; krisi egoera baliatu nahian ari dira begikoak ez dituen langileak kaleratzeko.

## Forja Talde Nagusia arriskuan, administrazioen utzikeriarengatik

Administrazioen utzikeriak kinka larrian utzi lezake EAEko Forja Talde Nagusia. Talde hau bost lantokiz osatuta dago, eta 415 langile daude lanean. ELA-Metalak salatzen duenez, ez Jaurlaritzak, ez Foru Aldundiek ez eta Gobernu Ordezkaritzak ez dute talde honen aldeko hautua egin, irabaziak dituen sektore estrategikoa izan arren. Egoera honen aurrean ELAk arduraz jokatzea exijitzen die administrazioei.

## Aprobado el ERE de Comansa

La plantilla de Comansa, de Iruñea, decidió en asamblea aprobar la última propuesta de ERE de la dirección de la empresa, lo que supone el despido de 90 trabajadores, a pesar de que la sección sindical de ELA defendió, desde el primer momento, su rechazo.

ELA entiende que la decisión de la asamblea sólo se explica por la presión que supone tener encima la espada de Damocles de un gobierno que se ha alineado en esta crisis una vez más con los intereses empresariales y ha optado por aprobar cualquier petición por parte de la empresa. Los trabajadores/as han creído optar por el mal menor.

## La dirección de Gruas Jaso pretende llevar el ERE a Madrid

ELA ha denunciado la intención de la dirección de Gruas Jaso de presentar el expediente de rescisión de 161 empleos en Madrid, aprovechando que cuenta con un centro de producción en Zaragoza. ELA ha anunciado que no va a aceptar despidos y ha exigido a la dirección de la empresa que negocie salidas no traumáticas.

## Huelga en Isphording, de Altsasua

La plantilla de Isphording Hispania, de Altsasua, mantiene una huelga indefinida desde hace más de un mes en protesta por el segundo ERE de suspensión presentado por la dirección. La empresa cuenta con 93 trabajadores/as y se dedica a la grifería y quemadores de gas.

## ELA, contra el segundo ERE en Mercedes

Con el apoyo de UGT, CCOO, USO y Ekintza se ha suscrito el segundo ERE para la planta de Mercedes, de Gasteiz, que se prolongará hasta el mes de junio del 2010.

Para ELA, contrario al mismo, los sindicatos firmantes han concedido todo lo que la empresa solicitaba,

al tiempo que ha criticado que se haya dejado sin voz a la plantilla ya que, siguiendo la premisa de la Dirección, no se ha celebrado la asamblea general que desde ELA se demandaba.

ELA ha denunciado que desde que la mayoría sindical en Mercedes perdiera el referéndum del convenio colectivo en 2007, han tomado la determinación de dejar al margen a la plantilla para la toma de cualquier tipo de decisión.




## Ayra Kardan retira el expediente de rescisión de 54 trabajadores/as

La empresa Ayra Kardan ha retirado el expediente planteado ante Gobierno Vasco, por el que pretendía despedir a 54 trabajadores de la planta de Itziar.

ELA valora muy positivamente esta decisión y considera que se confirman los planteamientos defendidos por los representantes de ELA desde que se planteó el expediente en el mes de marzo. La empresa no ha demostrado, en ningún momento, las razones objetivas por las cuales se debía proceder a tomar una decisión tan traumática.

Según ELA, afrontar estas situaciones con firmeza y sin caer en posiciones derrotistas es la única manera de defender los puestos de trabajo.

## ELA rechaza el expediente en Tubos Reunidos

ELA ha criticado a la dirección de Tubos Reunidos por el planteamiento de un segundo expediente de regulación, que pretende mandar al paro a sus trabajadores/as durante 13 meses (del 1 de diciembre de 2009 al 31 de diciembre de 2010).

A pesar de los ingentes beneficios obtenidos en los pasados años e, incluso, durante el primer semestre de 2009 (8,32 millones euros), la compañía plantea un nuevo expediente de 167 días, que de aprobarse supondría poder suspender hasta un 75% de la jornada durante los 13 meses solicitados.

La dirección de Tubos Reunidos, además, está planteando la modificación de relevos y sistemas de trabajo, generando lo que ellos denominan ‘excedentes en la plantilla’. A juicio de ELA, es un serio aviso de justificación para futuros posibles despidos.

## Nuevos paros en Petronor

La asamblea de la refinería Petronor, de Muskiz, acordó el pasado 24 de septiembre continuar con las movilizaciones y paros en defensa del convenio colectivo. La plantilla dio luz verde a dos nuevos periodos de huelga para las próximas semanas.

La dirección de Petronor se niega a discutir aspectos básicos del convenio con la excusa de que están recogidos en el Acuerdo Marco firmado por Repsol para todo el grupo. La asamblea de trabajadores y trabajadoras de Petronor reivindica la capacidad propia de negociación y rechaza imposiciones ajenas.

ELA ha denunciado el chantaje y las medidas de presión utilizadas por la dirección contra la plantilla, –demora de contrataciones, manipulación de conceptos económicos, etc– y que ahora ha dado un paso más, al parar una planta y amenazar con aplicar un ERE.

## Fraude en Cartalsa, de Oion

La plantilla de la empresa Cartalsa ha realizado concentraciones ante el Gobierno Vasco, Diputación alavesa y Caja Vital para exigir su posicionamiento ante el cierre de la planta de Oion y el traslado de la producción a otro lugar, lo que supone la pérdida de 38 empleos.

## La plantilla de Ingemar sigue movilizándose

La dirección de Ingemar, empresa de mármoles y granitos situada en Usurbil, despidió el 30 de junio a veinte trabajadores fijos con cerca de ocho años de antigüedad y amenaza con más despidos. La plantilla protagoniza desde hace varias semanas paros y movilizaciones. Exigen la readmisión de los despedidos y abordar, entre todos, el futuro de la empresa.




## ELA rechaza el preacuerdo de la construcción de Bizkaia

ELA ha criticado el preacuerdo alcanzado en la construcción de Bizkaia entre la patronal y los sindi-

catos CCOO y UGT, ya que carece de concreciones y de compromisos reales. El preacuerdo no recoge la exigencia de que la patronal acepte reivindicaciones básicas como la aplicación del convenio provincial en todas las obras o el respeto a las normas de seguridad, cuestiones, para ELA, irrenunciables. Asimismo, el preacuerdo permite que la patronal siga desregulando el sector a través de una subcontratación excesiva, en la que los derechos de las personas están anulados. El exiguo incremento salarial es otras de las razones de ELA para rechazar este preacuerdo.



## Contra el exceso de horas en el sector del transporte

El 13 de octubre, dentro de la campaña que bajo el lema *La fatiga mata* convoca anualmente la Federación Internacional de Transporte (ITF), representantes de ELA estuvieron en el Puente de Biriatou repartiendo entre los transportista hojas informativas a favor de la limitación de 48 horas de trabajo semanales y contra la desregulación y liberalización del sector.

## El convenio colectivo de Ayuda a Domicilio de Bizkaia, de aplicación general

Una sentencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco establece que el convenio colectivo del sector de Ayuda a Domicilio de Bizkaia es de aplicación en todas las empresas. La patronal pretendía reducirla a las empresas y trabajadoras con licitaciones de ayuntamientos.

## ELAk Kutxaren aurkako bi auzi eske aurkeztu ditu

Sindikatu honek salatu du 1994 geroztik sartutako langileek soldata txikiagoak, mailaz igotzeko zailtasun handiagoak, pentsio plan kaskarragoak eta ordutegi okerragoak dituztela. Ondorioz, ELAk auzi eskaerak aurkeztu ditu Kutxako 1994 lan hitzarmenaren zenbait baldintzen aurka.

## Saturación en el Hospital de Cruces

La sección sindical de ELA en el Hospital de Cruces ha denunciado la saturación del servicio de urgencias, lo que provoca que los pacientes tengan que permanecer en los pasillos, sufrir tiempos prolongados en espera de ingreso y falta de privacidad. En el caso de que no se solucione el problema, no se descarta el inicio de movilizaciones.

## Hezkuntza Sailak egingo duen Enplegu Publikoko Eskaintza ez da nahikoa

Unibertsitatez kanpoko irakasle publikoen mahai sektorialean, 2010. urtean egingo den Enplegu Publikorako Eskaintzaren berri eman du Hezkuntza Sailak. EPE honetan Bigarren Hezkuntzako 451 lanpostu baino ez dira eskainiko. Eskaintza hau, sektorearen egoera kontuan hartuz gero, ez da nahikoa, inolaz ere.

Gogoan izan behar da, ikasturte honetan, EPE honek eragiten dien kidegoetan, gutxienez 1.968 irakasle ordezko daudela ikasturte eta lanaldi osoko lanpostuak betetzen, kopuru horri ordezkapen txikiagoak egiten ari direnak gehitu behar zaizkiola eta maila hauetako zerrendetan izena emana daukatenak beste milaka batzuk direla.

EPE hau bereziki arbuiatzeko beste arrazoi bat ere bada: eskainiko diren lanpostuetatik %20 baino gehiagotan ez da ezinbesteko baldintza izango euskaraz irakasteko hizkuntza-eskakizunaren jabe izatea.

## Protesta de ELA-Ertzaintza

Representantes de ELA se concentraron a las puertas de la comisaria de Ondarroa bajo el lema *Menos fotos, más soluciones*, coincidiendo con su reinauguración, tras el atentado de ETA que destrozó parte del edificio.

ELA exigió una ampliación de plantilla, la regulación de la segunda actividad y el adelanto de la edad de jubilación, entre otros aspectos.

**Ataque a la libertad sindical en el Ayuntamiento de Gasteiz ›** El pasado 8 de octubre tuvo lugar la primera de las movilizaciones convocadas por ELA en protesta por el despido de la presidenta de la Junta de Personal del Ayuntamiento de Gasteiz, perteneciente a nuestro sindicato. En opinión de ELA, este despido supone una gravísima e inadmisible agresión de una institución pública a la Libertad Sindical, y ha venido precedida de otras decisiones por parte del alcalde, Patxi Lazcoz, que van en la misma línea, como la negativa a aplicar el Convenio Municipal Sectorial o la usurpación de locales sindicales.

La sección sindical de ELA en el consistorio gasteiztarrra ha denunciado que el Partido Socialista está actuando con una actitud de total prepotencia y ninguneo, instaurando el ordeno y mando en las relaciones laborales y creando una situación cada día más insostenible en la plantilla.

**Estatuko Funtzio Publikorako akordioaren aurka ›** Espainiako Gobernuak eta CCOO, UGT eta CSIF sindikatuek funtzio publikorako akordioa sinatu dute. ELAk gogor salatu nahi du gizarte elkarrizketaren markoaren baitan lortutako akordioa. Onartezina da propagandaren bidez Estatuaren menpe dauden funtzionarioen prekarietatea ezkutatu nahi izatea. Akordioak soldaten izoztea dakar, nahiz eta %0,3ko igoerarekin mozorrotu nahi izan duten. Hurrengo hiru urteetan soldatak ez direla Kontsumorako Prezioen Indiziea baino gehiago igoko sinatzeak langileen erosteko ahalmena murriztuko du.

**El Gobierno vasco no presenta propuestas en la Mesa General ›** ELA criticó al Gobierno de Lakua por no presentar propuestas concretas en ninguna materia de negociación en la reunión de la Mesa General de la Administración celebrada el 2 de octubre. En opinión de ELA, la actitud de los responsables del Gobierno vasco fue poco transparente.

aberastasuna banatu

ELAKO BOST MILA ORDEZKARIK BESTELAKO POLITIKA PUBLIKOAK EGITEKO ETA ABERASTASUNA HOBETO BANATZEKO ESKATU DUTE BILBON, URRIAREN 7AN

# Bestelako gizarte-ereduaren aldeko aldarria

› N.I.













Arriba, varios momentos del acto de La Casilla. Abajo, y a la derecha, instantes de la manifestación, amenizada por Xabier Pérez Herrero y Mirari Irure que, desde un camión y con potente megafonía, animaron al personal con sus canciones y consignas. Ni la tromba inicial de agua fue capaz de deslucir una nueva jornada de fiesta y de reivindicación como la del Día Internacional por el Trabajo decente.

**150.000 sinadura, krisiaren aurkako gure neurrien sostengu.** Urriaren 7an, Lan Egokiaren aldeko Nazioarteko Egunarekin bat, ELAk ekitaldi eder bat antolatu du Bilboko Casilla pabilioian, 5.000 bat ordezkari eta militanteren aurrean. Horrela, amaiera eman zaio 2009. urtean zabaldu den kanpainari: *Más salarios, más gasto social, más justicia fiscal; Gobiernos y patronal van de la mano; Aberastasuna banatu*. Azken hilabeteotan ELAk egungo egoerari buruzko diagnostikoa helarazi dio gizarteari, bere proposamenekin batera; eta mobilizaziorako deia ere zabaldu du jendartean, ez baitago politikak zeharo aldatzeko modurik, mobilizazio bidez ez bada.

Ekitaldian, Unai Martinez eta Izaskun Garikanoren eskutik, hurrengo hizlari hauek aritu ziren: Gizarte Politiken arduradun Mikel Noval, Negoziazio Kolektiboaren arduradun Joseba Villarreal, idazkariorde nagusi Amaia Muñoa, eta idazkari nagusi Adolfo Muñoz *Txiki*.

Egungo egoera aztertu zuten hainbat ikuspuntutatik, baina denen hitzaldietan ideia bat nagusitu zen: ELAk jendearen ondo-ondoan jarraituko du kalean eta lantokietan, eta beti aurpegia emanez. Aupada bat eman zieten ELAko militanteei gure proiektu sindikala azaltzen jarraitzeko, eta sostengu gehiago bilatzeko –150.000 sinadura–, ELA, LAB, STEE-EILAS, ESK, EHNE eta Hiru sindikatuek plazaratutako krisiaren aurkako neurrien alde.

Casillako ekitadiaren ondoren, ELAren jarraitzaileek manifestazio zaratatsua eta ikusgarria egin zuten Bilboko Kale Nagusitik Plaza Borobileraino. Gatazkak dituzten enpresek beren aldarriak entzunarazi zituzten ibilbidean zehar.







# LAN OSASUNA
# SALUD LABORAL

ONARTEZINA DA OSALANEK LAN OSASUN ETA SEGURTASUNARI BIDERATZEN DION DIRUA %8,6 MURRIZTU NAHI IZATEA

# Gero eta okerrago Osalanen



› JANIRE DOMINGUEZ

**Irailaren 30ean Osalaneko Kontseilu Nagusia ospatu zen.** Gobernu berria egonda ere, egoera ez da batere aldatzen. Nahiz eta Genma Zabaleta sailburuaren hitzetan gai hau Gobernuaretzat lehentasuna izan eta gauzak aldatzeko borondatea agerrarazi, errealitateak guztiz kontrakoa adierazten du.

Planteatzen diren neurriak eta politikak betikoak dira; jakinarazten diguten informazioa, beti bezala, eskasa eta kalitate gutxikoa, irakurketa osoak eta egokiak egiteko ezinekoa. Gainera Osalaneko 2010erako aurrekontuaren zirriborroa %8,6ko jaitsierarekin aurkeztu da. A ze nolako borondate politikoa! Argi dago berdin jarraitzeko intentzio osoa daukatela.

Gobernutik proposaturiko neurriak, lan istripu eta gaixotasunen egoeraren diagnosia eta aurrekontua aztertzeaz gain, beste bi gai jorratu ziren: lan arriskuen prebentziorako fundazioari buruzko epaia eta Osalanen eta eraikuntzako lan fundazioaren arteko lankidetza hitzarmena, formakuntzan oinarrituta.

Epaiaren inguruan esan, Lan Arriskuen Prebentziorako Fundazioak (estatu-mailakoa, non patronala, CCOO eta UGT kide diren), urtero, baliabideak esleitzeko deialdia egiten duela, batez ere ETEetan laneko segurtasun eta osasun baldintzak hobetzeari begira, informazioan, laguntza teknikoan, prestakuntzan eta arau-sustapenean oinarrituriko ekintzak antolatu daitezen. Aurreko Eusko Jaurlaritzak 2008ko deialdia ezeztatzea eskatzeko demanda aurkeztu zuen, Fundazioak fondoen kudeaketa legez kontra burutzen zuela defendatuz. 2009ko martxoaren 23ko epaiak dirua EAEren eskueran jarri beharra dagoela ulertu zuen.

Epaiarekin bat, ELAk urteetan zehar defendatu dugun jarrera bera adierazi zuen Kontseiluan, gobernuari hiru aldarrikapen zehatz eginez:

- EAEn sortu eta Gizarte Segurantzako Lan Istripu eta Gaixotasun Profesionalen Mutuek igorritako prebentzio-fondoen soberakinak oso-osorik EAEn uztea, Kontseilu Nagusiak zuzenean esleitu ditzan.
- Fundazioari, EAEn ezarritako Mutuek azken urteetan igorritako prebentzio-fondoen soberakinei dagokien diruaren transferentzia eskatzea, Kontseilu Nagusiak zuzenean esleitu dezan.
- Adierazitako irizpideekin bat ez datorren edo Estatuan erabakitako eredua aplikatzeko baldintza betetzera behartzen duen fondorik ez onartzea.

**Bestetik, Osalan eta Eraikuntzako Lan Fundazioaren** arteko hitzarmena uztailaren 8an sinatu zen. Akordioak eraikuntzako sektorean aritzen diren langileei prebentzio alorreko formakuntza eman eta hori frogatzen duen Eraikuntzako Lanbide Txartela lortzea du helburu. Baina, horretarako Osalanek Ikasgela Iraunkorra Fundazioaren mesedetara jartzen du, ikasgela edukirik eta ahalmenik gabe utzi eta, txartela lortzeko modu bakarra Estatuan ezarritako irizpideak jarraituz egingo delarik.

**Las políticas que propone el nuevo Gobierno Vasco no difieren en nada de las que proponía el anterior**

Eusko Jaurlaritzak bestalde, ez du aurkakorik esan (eskumenen inbasioa jazo arren), eta, lankidetza-hitzarmenaren bitartez, erakunde pribatu horren interesen azpian jarri da, bere zereginak haren esku erabat utzirik.

Are gehiago, hitzarmenaren ondorioz, Gipuzkoan non sektoreko gehiengo sindikala ELA eta LABek osatzen duten, Estatuko Hitzarmenean erabakitzen dena ezarriko da ere. Hau da, Osalanek eragotzi egiten du probintzia-mailako hitzarmen kolektiboen ahalmena, ezarriko den prestakuntza ez baitago jasota Gipuzkoako eraikuntza sektoreko hitzarmen kolektiboan.

Honek adierazten du, berriz ere, prebentzioaren gainetik bestelako interesek lehentasuna dutela.

ELAk argudio guzti hauetan oinarrituta, hitzarmena arbuiatu eta, bertan behera uztea eskatu dio Gobernuari.

## Osalan, de mal en peor

**Tras la reunión del Consejo de Osalan del 30 de septiembre** –primera tras el cambio de dirección en este organismo– ELA criticó la información facilitada a los miembros del Consejo por insuficiente y ser más pobre que la que hasta ahora venían recibiendo.

Asimismo, ELA denunció la línea continuista que se le pretende dar a este organismo, por lo que seguirán sin abordarse las causas de la elevada siniestralidad laboral y los problemas de seguridad y salud laboral existentes.

En este sentido, ELA mostró su oposición al recorte del presupuesto de Osalan en un 8,6%, lo que demuestra la escasa importancia que se le da a la seguridad y salud laboral.

» Ingurugiroari buruzko orrialde hau Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro sailaren lankidetzaz argitaratzen da.

INGURUGIROA
MEDIO AMBIENTE

# Puerto exterior de Pasaia: ni ecológico, ni necesario, ni viable

ELA EXIGE QUE NO SE REALICE ESTA MACROOBRA, QUE SE ABRA UN DEBATE SOCIAL SOBRE LAS DISTINTAS ALTERNATIVAS AL PROYECTO, Y QUE SE HABLE SOBRE LAS VERDADERAS NECESIDADES DE LA COMARCA

› AINHARA PLAZAOLA

**El Puerto exterior de Pasaia es un proyecto del que se habla mucho últimamente, pero no todo lo que se dice es verdad.** La Autoridad Portuaria de Pasajes, con apoyo de otras instituciones, dirige una campaña cuyo objetivo es engañar y confundir a la ciudadanía. ELA está en contra del proyecto por numerosas razones:

- **No es ecológico.** Dicen que la zona protegida de Jaizkibel estará mejor conservada con este puerto, aunque ocultan que rellenarán casi 200 hectáreas de mar. Otra de sus justificaciones ecológicas son las plataformas de energía renovable, pero ocultan la nueva central térmica, la planta de coque y el almacén subterráneo de $CO_2$. Y las mercancías del *ecopuerto* seguirán siendo sucias, ya que sólo con *limpias* el puerto no sería rentable. El puerto actual provoca graves impactos ambientales, pero los del puerto exterior serán peores.
- **No creará empleo.** Las actividades que se proponen no generarán más empleo. El tráfico del puerto va a menos cada año. Desde 2003 se ha reducido un 20%, y en 2009 sigue bajando. Teniendo en cuenta que las previsiones anteriores no se cumplieron, ¿qué credibilidad tienen ahora las que se hacen para 2020? ¿No sería mejor invertir en los servicios públicos y mejorar la calidad de vida de la comarca?
- **No es viable económicamente.** Quieren conseguir gran parte de la financiación vendiendo los terrenos del puerto actual, en plena crisis inmobiliaria y ¿cómo quieren abrir la bahía a la población si el terreno se vende al mejor postor? El puerto exterior se está vendiendo como la única vía para regenerar la bahía cuando es posible hacer una reordenación de usos en el puerto y dar nuevas utilidades al espacio. Esta opción no se contempla, y apuestan por la peor alternativa.
- **No tiene credibilidad.** Hace unos días el señor Buen, Presidente de la Autoridad Portuaria de Pasajes, apuntó que algunas actividades no saldrán al puerto exterior, y que el proyecto se haría en dos fases, pero que desde el primer momento la operatividad del puerto sería total. Entonces, ¿para qué hacer la segunda fase?

También dijo que la longitud del espigón se reduciría y que el puerto se desplazaría 200 metros hacia el este. Y para colmo, anunció la contratación de un bufete de abogados de Madrid para buscar financiación. Pero, ¿no decían que la viabilidad económica ya la tenían demostrada?




**Gizartearen iritziaren kontra egiteaz gain, Pasaiako portu berriak ez du enplegua sortuko eta ez da ekologikoa izango. Proiektua bera ez da sinesgarria.**

**Ni discusión ni debate.** Visto lo visto y oído lo oído, lo único claro es que el verdadero negocio está en la construcción del puerto; les da igual dónde y cómo se haga. Desgraciadamente, hay muchos precedentes de macroobras que no han servido para nada.

Somos muchas las organizaciones que nos oponemos a este proyecto porque, como en otras ocasiones, no ha habido discusión ni debate alguno sobre la necesidad o no del proyecto y las alternativas; y se le ha negado a la ciudadanía el derecho a decidir. ELA exige que no se haga el puerto exterior, que se abra un debate social para analizar distintas alternativas al proyecto, y que se hable sobre las verdaderas necesidades sociales existentes en la comarca.

GIZARTE EREDUA
MODELO DE SOCIEDAD




# Euskal Herria izeneko paradisu fiskala

HEGO EUSKAL HERRIKO PRESIO FISKALA NABARMEN IGO BEHARRA DAUKAGU EUROPAR BATASUNEKO MAILARA IRISTEKO, ETA BAITA GASTU SOZIALA ERE

› JULENE GABIOLA

**Ekonomiaren egungo moteltze-egoerak gizarte-ereduarekin loturiko hainbat gai** ekarri ditu hedabideetako eztabaidetara. Zerga arloa eztabaidagai horietakoa da, zergak gero eta premia handiagoak estaltzeko nahikoak diren ala ez diren, eta zerga-erreformak egokiak diren ala ez, ebaztekotan.

Datu zehatzetara pasatzen bagara, zergen guztizko presio fiskala (zuzeneko eta zeharkako zergei eta gizarte-kotizazioei dagokiena) askotxo aldatzen dela Europako Batasuneko (EB) estatu batetik bestera ikus dezakegu.

Datuen arabera, presio fiskalik handieneko herrialdeak Danimarka (Barne Produktu Gordinaren, BPGd-aren %48,7), Suedia (BPGd-aren %48,3), Belgika (BPGd-aren %44) eta Frantziako Estatua (BPGd-aren %43,3) dira. Bestalde, 27-EBko batez besteko presio fiskala BPGd-aren %39,8koa izan da.

**Hego Euskal Herriko presio fiskala aipatutako horietatik oso urrun dago,** BPGd-aren %33,4koa izan da eta. Modu horretan, Hego Euskal Herriak BPGd-aren 6,4 puntuko defizita izan du 27-EBrekiko. 27-EBko herrialdeetatik aztertu diren 13en artetik, Greziak eta Irlandak bakarrik dute Hego Euskal Herrikoa baino presio fiskal txikiagoa (%32,1ekoa eta %31,2koa, hurrenez hurren).

**En la actual situación económica es más necesario que nunca un debate sobre la fiscalidad: sobre cómo y cuánto debe recaudarse, y cuánto y cómo destinar al gasto público**

## Un crecimiento de la recaudación fiscal supondría, junto a la deuda, una potenciación del gasto público, reactivando así el papel redistribuidor de la administración, ahora que resulta más necesario aún

Presio fiskalak agertzen duen defizit horrek hauxe esan nahi du: urtero, Hego Euskal Herrian, 27-EBko batez besteko presio fiskalaz bilduko zen dirua baino 5.360 milioi euro gutxiago biltzen direla. Biztanleko zenbatetsiz gero, defizita 1.937,7 eurokoa izan da, batez beste.

Presio fiskalean dugun defizit hau, zeharkako zerga, zerga zuzen, edo gizarte segurantzara kotizazioetan gauzatu daiteke. Hauetan gertatzen dena aztertzera pasatzen bagara, defizit handiena zeharkako zergetan ematen dela ikus daiteke. Izan ere, zeharkako zergen kasuan, 15en Europako Batasunean ez dago estaturik zeharkako zerga baxuago daukanik.

**Zuzeneko zergetan ere.** Europar Batasunarekiko hurrengo jauzi handia, zuzeneko zergetan hautematen da, eta alde hau Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak eragindakoa da. ELAk hainbat urte daramatza soldatakoak ez diren errentek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan egiten duten iruzur fiskala salatzen.

Sozietateen gaineko Zerga dugu pisudun beste zerga zuzena, eta honi dagokionez, ez da egia Hegoaldean zerga horretan gehiago ordaintzen denik. Zehazki, 27en Europako Batasuneko presioa BPGd-aren %3koa izan da, eta Hego Euskal Herrikoa BPGd-aren %3,1ekoa.

Hala eta guztiz, Europar Batasuna hasieratik osatu duten estatu gehienek presio fiskal handiagoa dute zerga horretan. Are gehiago, nahiz eta enpresen errentagarritasuna altuagoa izan hemen, herrialde askok Sozietateen gaineko Zergan presio fiskal altuagoa dute.

Gizarte Segurantzarako kotizazioen presio fiskalean ere badago defizita Hego Euskal Herrian Europar Batasunarekiko.

**Ondorioa argia da: presio fiskalean dugun defizita gainditu beharrean gaude,** Europako gizarte gastu maila lortu ahal izateko. Lerro hauetan argi geratu den bezala, badaukagu nondik jo.



# LABURREAN

## EXISTE MARGEN EN EL TIPO MÁXIMO DEL IRPF

Los tipos máximos del IRPF en Hego Euskal Herria son inferiores a muchos de los países más desarrollados de la Unión Europea, lo que supone una ventaja comparativa para los colectivos de ingresos elevados.

A ello ha contribuido que el descenso experimentado en el tipo máximo del IRPF en Hego Euskal Herria haya sido de los mayores entre los países europeos.

## EL TIPO DEL IMPUESTO SOBRE SOCIEDADES EN HEGO EUSKAL HERRIA

No es verdad que el Impuesto sobre Sociedades en Hego Euskal Herria sea muy elevado a nivel europeo. Muchos estados de la Unión tienen tipos en el Impuesto sobre Sociedades mayores que Nafarroa (con un tipo del 30%) y, sobre todo, que la CAPV (28%).

Además, conviene señalar que, como consecuencia de las distintas desgravaciones, exenciones etc., el tipo real por el que acaban tributando las empresas en Hego Euskal Herria acaba siendo considerablemente menor que el tipo nominal del Impuesto sobre Sociedades, en concreto, alrededor del 17%.

## EN DIRECCIÓN CONTRARIA

Haciendo caso omiso del margen que existe en Hego Euskal Herria para una mayor presión fiscal, el camino seguido por las administraciones de Hego Euskal Herria en los últimos años ha ido precisamente en el sentido contrario, ya que las sucesivas reformas impositivas han consistido en descender una y otra vez los impuestos a las rentas altas, empresariales y del capital.

Inevitablemente, ello, junto a las continuas privatizaciones y subcontrataciones, conlleva un menor peso de la iniciativa pública y una potenciación de la iniciativa privada.

LEGEAREN BUELTAK
PAGINAS JURIDICAS




# Banakako kontratazioa, andanan burututakoa

GAUR EGUNEKO LAN-HARREMANEN SISTEMAREN OINARRIAK KOLOKAN UTZI LEZAKETE EPAILEEK

› **BIZENTE HARRIOLA**

**Krisiari aurre egiteko orduan berehala atzeman dituzte batzuk neurriak: lan baldintzen malgutasuna eta, azken buruan, desregulazioa behar omen da enpresetan.** Nahiz eta krisia sortu eta eragin duten motiboekin zer ikusi batere ez duten neurriok.

Kutxa-k arratsaldetan bulego guztiak ireki behar omen ditu. Corte Ingles 40.000 langileren lan-txanda aldatzera doa, enplegua mantentzeko. Eta Zaran eta Stradivarius-en uda parteko larunbat arratsaldetan dendak irekitzeko erabakia hartu da...

Horretarako, indarrean dagoen hitzarmena oztopo besterik ez da. Eragin loteslea du, legea halako araua da, ezin zaio zirkin egin.

Langileen Estatutuak izan duen erreformarik garauenak, 1994koak, hitzarmenen indar eragilean pitzadurak eragin zituen: soldaten eraispena, *descuelgue* delakoa, burutzeko bidea, eta lan baldintza batzuen aldatzeko prozedura ezarri zituen. Lanaldia, halere, ukitu ezinezkoa geratu zen. Tentuz burutu omen zen erreforma, askatasun sindikal eta negoziaketa kolektiboko eskubideak murriztu gabe, omen.

**Admitir la contratación individual en masa supone volver a la prehistoria sindical, donde no cabían los acuerdos colectivos**

**La reforma de la negociación colectiva busca precisamente limitar la eficacia vinculante del convenio e individualizar las relaciones laborales**

**Banakako kontratazio andanakoa.** Hitzarmeneko baldintzak aldatzeko urrats premiazko bat langileen ordezkari, unitario nahiz sindikalekin, ituntzea eta akordioa lortzea da; eragile kolektiboekin alegia. Baina enpresek lan baldintzak euren kabuz inposatzea bilatzen dute. Langile bakoitzarekin *borondatezko* tratua egin nahiago dute, aldez aurretik ordezkari edo sindikatuekin ituna lortzen saiatu eta porrot egin eta gero, edo berdin saioa egin gabe ere.

Epaileek mugarik gabe ontzat emango balute andanan burututako banakako kontratazioa, edo berdin mugekin ere, merkatuaren lehiakortasunak hala agintzen omen duelako, hitzarmen kolektiboen balioa hutsaren hurrengoan geratuko litzateke, eta gaur eguneko lan-harremanen sitemaren oinarriak kolokan geratuko lirateke.

Egunotan negoziaketa kolektiboaren erreformarako mezuak entzuten dira, aldian-aldian bezala, eta enpresarien ildoak agerikoak dira: hitzarmenen indar eragilea apaltzen joatea, lan erlazioen indibidualizazioa helburu.

Urratsez urrats, *Ley Le Chapelier* hartara itzuli arte, agian (orain 200 urte inguru, askatasun indibidualaren izenean, elkarteak eta akordio kolektiboak debekatzen zituen legea).

## LABURRAK

### Derecho a permiso por hospitalización de parientes: incluye el parto atendido en un hospital

El art. 37.3.b) ET establece el permiso de dos días por la hospitalización de parientes hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad. El TS, en sentencia de 23-04-2009 (RJ 2009/3249), ha declarado que tal permiso corresponde también en caso de ingreso hospitalario de la parturienta, sin que quepa distinguir entre hospitalización por enfermedad u hospitalización por parto, incluso parto normal y sin problemas.

En el caso, la empresa sólo otorgaba licencia en caso de parto no natural o sanitariamente problemático. Pero la ley habla únicamente de *hospitalización*, sin distinguir entre causas. Además, otra interpretación resulta discriminatoria y contraria a la conciliación de la vida laboral y familiar de la mujer trabajadora.

El TS cambia así de criterio respecto a lo dicho en la sentencia de 24-07-2008 (RJ 2008/7165).

### Falta de garantías frente al despido por enfermedad

El Tribunal Supremo concluyó recientemente que el despido por enfermedad (no ser el trabajador/a económicamente rentable, en definitiva) no constituye discriminación y que, por tanto, el despido resulta improcedente pero no nulo (SSTS de 22-11-2007 y 18-12-2007, RJ 2008/800 y 2008/1183).

Parecía que el TC podía corregir tal doctrina, pero la ha ratificado, por sentencia de 28 de mayo de 2008 (RTC 2008/62), señalando que la enfermedad, en principio, no es factor discriminante, al no figurar entre las causas de discriminación de los arts. 14 CE y 17.1 del Estatuto de los Trabajadores. La sentencia contiene un voto particular, defendiendo que el trabajador –a quien el INSS le había denegado la invalidez permanente y era despedido, al mismo tiempo, por enfermedad–, resultaba discriminado.

## » CONSULTORIO JURÍDICO

# Contratación individual en masa para modificar lo dispuesto en el convenio

**En STRADIVARIUS y ZARA pretenden eludir el derecho a libranza de los trabajadores/as** los sábados por la tarde en el período de verano, que taxativamente dispone el convenio sectorial. Para ello se acogen al procedimiento de modificación sustancial de las condiciones de trabajo del art. 41 ET, y en último término a los acuerdos individuales, lo que se denomina la ‘contratación individual en masa’.

La posibilidad de modificar lo dispuesto en convenio colectivo es un tema de la mayor gravedad, porque pone en cuestión la eficacia vinculante del convenio y el papel asignado a los sindicatos para regular condiciones de trabajo mediante la negociación colectiva. Un paso en esta dirección fue la reforma del ET de 1994, que incorporó el denominado ‘descuelgue salarial’, así como la posibilidad de modificación de otras condiciones. De acuerdo con el art. 41.2 ET, la modificación sustancial de condiciones establecidas en convenio colectivo estatutario sólo puede producirse mediante acuerdo entre la empresa y los representantes de los trabajadores, y sólo respecto a determinadas materias, entre ellas el horario, pero no la jornada laboral, que queda expresamente excluida de tal posibilidad.

**Las cuestiones de legalidad ordinaria.** En Bizkaia, el Convenio Provincial de Comercio Textil dispone en relación a la jornada laboral, entre otras cosas, que “durante los meses de julio, agosto y septiembre, el personal librará los sábados a la tarde”.

En ZARA y STRADIVARIUS se pretende eludir tal disposición, bien a través del acuerdo con los representantes de los trabajadores o mediante acuerdos individuales en masa. En el caso de estos acuerdos individuales, el TS los venía avalando, como en el caso de Cajamadrid, donde se pactaba un *horario singular* al margen del convenio. El TS, en sentencia de 18-07-2003 (RJ 2003/6928) rechaza el conflicto colectivo planteado por los sindicatos por cuestión de forma, pero añadiendo,a mayor abundamiento, argumentos de legalidad ordinaria de fondo: que la empresa había pactado con todos y cada uno de los trabajadores afectados, “a cambio de ventajas que –se puede suponer– resultan más favorables para éstos, en cuanto que han sido aceptadas por los mismos de forma generalizada”; o sea, la modificación resultaba legal por concurrir la aceptación voluntaria y ser favorable, en principio, para los trabajadores/as (en referencia clara al art. 3.1.c ET).

**La dimensión constitucional de la cuestión.** El Tribunal Constitucional, mediante sentencia de 26-09-2005 (RTC 2005/238), declara que la anterior sentencia vulnera el derecho de libertad sindical de los sindicatos, y la revoca, señalando que el convenio colectivo y la autonomía colectiva prevalecen sobre la autonomía individual de los trabajadores.

El TC considera que el carácter peyorativo o no de la modificación operada no resulta relevante –algo, por otra parte, difícil de apreciar–. Tampoco resulta relevante la pretendida voluntariedad para los trabajadores de la oferta empresarial. Lo relevante es que tales modificaciones suponen “la introducción unilateral de la regulación colectiva de las condiciones de trabajo, soslayando y evitando la intervención de los representantes sindicales, en los términos del art. 10.3 LOLS o vaciando sustancialmente de contenido efectivo al convenio colectivo de trabajo”. Todo ello, además, con independencia del número de trabajadores/as afectados, que también resulta irrelevante.

En el caso de ZARA, existe el precedente de Sevilla, en donde el Juzgado de lo Social, por sentencia de 11-01-2006 (AS 2006/2952), declara que la celebración masiva de contratos, en los que el trabajador acepta trabajar en los domingos y festivos frente a lo dispuesto en el convenio sectorial, resulta contraria a los derechos fundamentales de libertad sindical y de negociación colectiva, anulando tal cláusula.

En cuanto a la pretensión de restablecer el trabajo los sábados por la tarde en el período de verano a través del eventual acuerdo con los representantes de los trabajadores, hay que significar que constituye propiamente modificación de una vertiente cualitativa de la jornada establecida en convenio, que por tanto no puede llevarse a cabo mediante el procedimiento del art. 41 ET.

## KRONIKA
## DE LA A A LA Z




# Obrero despedido...

› GORKA QUEVEDO

**... Patrón subvencionado.** Durante años, el lema 'Obrero despedido, patrón colgau' fue uno de los más coreados por la clase trabajadora. Los tiempos cambian, y el grito debería sustituirse por el de 'Obrero despedido, patrón subvencionau'. No contentos con que el despido libre le salga gratis a la patronal, con el pretexto de la crisis y bajo el paraguas del diálogo social, gobiernos, patronal y los sindicatos UGT y CCOO están llegando acuerdos donde se subvenciona a la patronal... ¡por destruir empleo! Ni en los más hermosos sueños de la patronal.

**A › Arenys de Munt:** Arenys de Munt es una localidad de 8.000 habitantes situada en la provincia de Barcelona. El 13 de septiembre sus ciudadanos votaron en referéndum si querían o no que Catalunya fuera un estado independiente y social dentro de Europa. El referéndum –aunque sus resultados no fueran vinculantes– puso muy nervioso a parte de la clase política, tanto en Catalunya como en España y en Euskal Herria.

**B › Bilbao:** El 7 de octubre finalizó en Bilbao la campaña 'Aberastasuna Banatu: Más salarios, más gasto social, más justicia fiscal', con la que ELA ha pretendido socializar en las empresas y en la calle sus propuestas para lograr un reparto más justo de la riqueza. Una campaña que ha querido, y conseguido, que se hable de lo que no quieren hablar ni gobiernos ni patronal: que es posible un reparto más justo de la riqueza.

**C › CES:** José Luis Ruiz, presidente del Consejo Económico y Social, afirmó en el acto conmemorativo del 25 aniversario del organismo que "la ausencia de ELA y LAB nos ha permitido avanzar y superar el veto; su ausencia facilita el consenso". Evidentemente, José Luis: en un órgano donde todos –Gobierno Vasco, patronal y CCOO-UGT– piensan lo mismo, los acuerdos son más fáciles.

**D › Dinero:** Durante años los bancos desangraron a millones de personas en todo el mundo. Cuando la burbuja financiera que ellos mismo crearon estalló, los gobiernos de los países más poderosos de la Tierra les dieron ingentes cantidades de dinero público. Ahora, las entidades financieras registran beneficios muy por encima de lo esperado. Y vuelven –si es que alguna vez se fueron– los bonos millonarios para los ejecutivos de la banca. Si esos Gobiernos tuvieran un

**Krisiari aurre egiteko agintariek iragarri dituzten neurriek ez dute ezer konpondu**

mínimo de decencia y dignidad deberían exigir que esos bancos devuelvan nuestro dinero.

**E › EITB:** El Parlamento Vasco ha aprobado el nuevo Consejo de Administración de Euskal Irrati Telebista. Según el acuerdo logrado por PSE-EE, PNV y PP, el sindicato CCOO será quien ocupe uno de los cuatro puestos correspondientes a organizaciones sociales, culturales, cooperativas o Universidad. CCOO sustituye a UGT en ese puesto. Se pretende marginar al sindicato mayoritario, que cuenta con más del 40% de representación. Una nueva discriminación contra el sindicato mayoritario, tanto en Euskal Herria como en EITB. Los favores se pagan, pero ahora es que ni los disimulan.

## Berlingo harresia duela 20 urte erori zen; hala ere, mundu zabalean badira oraindik harresi ugari

**F › Fracaso:** El Gobierno de Navarra, patronal y los sindicatos CCOO y UGT firmaron en junio un acuerdo para "subvencionar la contratación de trabajadores/as". Anunciaron que la medida supondría la creación de 8.000 nuevos puestos de trabajo. La realidad, sin embargo, es muy diferente. En los dos primeros meses después del acuerdo se han contratado... 69 personas. Un nuevo fracaso del modelo de concertación social navarro, que sólo sirve para la financiación pública de los inseparables amigos de Sanz.

**G › Gasteiz:** Gasteiz acogerá el 13 de noviembre el próximo acto de la mayoría sindical vasca por un modelo económico y social más justo. La situación que vive la clase trabajadora vasca es muy grave, por lo que es más necesario que nunca movilizarse para lograr un cambio en las políticas públicas.

**H › Hambre:** El Programa Mundial de Alimentos, órgano dependiente de la ONU, ha advertido que el número de personas que pasan hambre en el mundo ha superado durante el 2009 los 1.000 millones de personas. Hambrientos que, en la mayoría de los casos, llevan en crisis desde hace muchos años.

**I › Invisibles:** Patxi López, Miguel Sanz y José Luis Rodríguez Zapatero han anunciado en los últimos tiempos diferentes medidas 'anticrisis'. Pues bien, pasa el tiempo y no se vislumbra que nada vaya a mejor. Es evidente que por mucho bombo que les den a sus medidas los efectos son invisibles. Al menos, para la clase trabajadora.

**J › Jóvenes:** Mujeres y temporales, también. Según la Encuesta Anual de Estructura Salarial 2007 que acaba de publicar el Instituto Nacional de Empleo, los jóvenes, las mujeres y las personas con contrato temporal cobran entre un 26 y un 32% menos. Mujer, joven y con contrato temporal. El cóctel perfecto para la patronal: en tiempos de bonanza económica producen beneficios y en tiempos de crisis es gente perfectamente prescindible.

**L › Lurrama:** Baiona acogerá del 30 de octubre al 1 de noviembre una nueva edición de la feria agrícola Lurrama. Una excelente oportunidad para comprobar in situ el trabajo de los laboraris de Iparralde y para comprobar que otro tipo de agricultura es posible.

**M › Muro:** El 9 de noviembre de 1989 cayó el muro de Berlín. Han pasado 20 años pero, desgraciadamente, sigue habiendo muchos otros muros en el mundo. El muro ilegal –según la legislación internacional– que Israel está construyendo en Palestina; el muro de alambre y minas que Marruecos tiene en el Sahara ocupado para, entre otras cosas, impedir el retorno de los refugiados/as saharauis; el muro-fortaleza que Estados Unidos está fortaleciendo día a día en la frontera con Méjico y que causa todos los años la muerte de miles de personas que quieren entrar en Estados Unidos... Desgraciadamente, sigue habiendo muchos muros contra los que luchar.

**N › Neoliberales:** La Diputación de Bizkaia ha decidido privatizar la gestión del albergue foral de Plentzia, último albergue-residencia de gestión íntegramente foral. Un nuevo ejemplo de la gestión neoliberal de José Luis Bilbao y compañía. Subcontratación, precariedad, discriminación, pérdida de las condiciones de trabajo... Esto es, en definitiva, lo que propone la Diputación de Bizkaia para los trabajadores/as.

**O › Obama:** Nuevo Premio Nobel de la paz. Ni él mismo se lo creía –manifestó encontrarse 'asombrado'–. Normal. Leyendo la nota de prensa del jurado del premio se concluye que es un nobel preventivo. Hablan de buenas palabras e intenciones, pero de hechos, nada de nada.

**P › Paro:** Un nuevo **Landeia** y un clásico. Mes a mes los datos del paro son cada vez peores en Euskal Herria. Está claro que las medidas anunciadas por los gobiernos de Gasteiz e Iruñea no sirven para crear empleo.

**R › Referéndum:** El primer ministro escocés, Alex Salmond, ha anunciado que convocará un referéndum sobre la independencia de Escocia en 2010. Este anuncio supone un paso más en el proceso que busca recuperar la soberanía para esta nación europea. El anuncio de la convocatoria del referéndum sobre la independencia ha sido acogido como símbolo de democracia y normalidad por la mayoría de Europa. Menos en España. ¿Por qué será?

**S › Sabeco:** Las trabajadoras del supermercado Sabeco, de Rentería, cumplieron el 16 de octubre un año en huelga por unas condiciones dignas de trabajo. Un año de lucha, aunque Emakunde acabe de enterarse. '¿Qué pasaría si las mujeres hicieran huelga?' se preguntaban en Emakunde el pasado 8 de marzo. Parecía una broma. De mal gusto.

## Aberastasunaren bidezko banaketa lortzeko egin den kanpaina arrakastatsua izan da

**T › Túnel:** Respondiendo a la convocatoria de la mayoría sindical miles y miles de personas se manifestaron el 17 de octubre en Donostia para denunciar las detenciones de destacados miembros de la izquierda abertzale por orden del dúo Rubalcaba-Garzón. La manifestación comenzó en el túnel de Ondarreta. Esperemos que sea el inicio de un camino que nos lleve al final del túnel del conflicto que vive Euskal Herria desde hace años.

**U › UE:** Érase una vez un país que votó en contra del referéndum sobre el Tratado de Lisboa. Como el resultado no gustó a los mandamases de la Unión Europea le obligaron, un año después, a volver a votar, a ver si esta vez no se equivocaban. En plena crisis económica, y con la amenaza que si volvían a votar equivocadamente todo iría a peor, los ciudadanos de ese país votaron que sí a ese mismo tratado. Y así, los mandamases de la UE fueron felices y comieron perdices.

**V › Vertical:** Durante la última dictadura, Franco decidía quién representaba los intereses de cada parte; en el caso de los trabajadores/as, quién debería representarlos en el sindicato vertical. Ahora, Patxi López pretende hacer lo mismo: como democráticamente no puede –es obvio quién tiene mayoría sindical– ,el Gobierno de Gasteiz ha decidido cambiar las reglas de juego y montar un diálogo social con la minoría sindical que se presta a avalar sus políticas. Y las de la patronal, por supuesto.

**Z › Zozobra:** Es lo que da al pensar cuál es la pensión media de una persona en Euskal Herria y cuál es la pensión que cobrará a partir de ahora el ex consejero delegado del BBVA, José Ignacio Goirigolzarri –3 millones de euros anuales–. Si alguna vez le ven por Bilbao no duden en decirle que les invite a un pote. Por falta de dinero, desde luego, no será.

# “La crisis principal es política, y políticas son las soluciones”

ADOLFO MUÑOZ, SECRETARIO GENERAL DE ELA, VUELVE A REIVINDICAR LA URGENCIA DE OTRAS POLÍTICAS PÚBLICAS. ES POR ELLO QUE LA MAYORÍA SINDICAL VASCA HA TRASLADADO A LAS ADMINISTRACIONES DE LA CAPV Y NAVARRA UN DECÁLOGO DE MEDIDAS PARA SUPERAR LA CRISIS Y RECABARÁ EL APOYO DE LA SOCIEDAD A LAS MISMAS

› N.I.




**-¿Qué diagnóstico hace ELA de la situación actual?**

-Vivimos tiempos difíciles y duros, sobre todo para quienes pierden su trabajo. En un año el desempleo ha crecido el 50%, y ya hay más de 160.000 personas en paro en el conjunto de Hego Euskal Herria. De ellas, una de cada tres no cobra prestaciones. Es decir, el paro, con el bajo nivel de coberturas sociales que existe, se convierte en una puerta de entrada a la pobreza.

Otro dato reseñable es que una parte importante de esas personas que han perdido su puesto de trabajo tenía contrato temporal; es decir, que su despido le ha salido gratis total a la patronal.

Y entre la clase trabajadora que sigue en activo, el nivel de precariedad es enorme. Las Haciendas de la CAPV y de Navarra no aportan el dato, pero en el estado un 57% de los trabajadores/as ganan menos de 1.100 euros mensuales. No tenemos motivos para pensar que la situación sea radicalmente distinta aquí.

En resumen, mucha gente lo está pasando muy mal, y el sindicato no puede quedarse de brazos cruzados.

## Dauden estaldura sozial urriak daudela, langabezia berez pobreziarako sarbidea da

**-Insistes en que no hay que olvidar las causas de esta crisis, para no pegar palos de ciego...**

-Así es. Gobiernos y Patronal esconden las causas porque quieren seguir haciendo lo mismo.

Se oculta la responsabilidad de los gobiernos, que han hecho política (laboral, fiscal, presupuestaria, de privatizaciones...) para beneficio del capital y las empresas. Esconden que ha sido una crisis de beneficios, de trato privilegiado a quienes más tenían. Esconden el injusto reparto de la riqueza. Se oculta, en definitiva, la acumulación de capital y la orgía especulativa en la que han estado enfangados.

En este sentido, la crisis da la razón a quienes denunciábamos el componente especulativo de los beneficios empresariales y que la política servía, impúdicamente, a esos intereses.

Las políticas deben cambiar, pero no quieren. La crisis principal es política, de igual manera que políticas son las soluciones.

**-En este contexto, ¿cuáles son las prioridades de ELA?**

-Fortalecer a la militancia. Porque le toca el trabajo más difícil: llevar a la práctica elementos de solidaridad para, juntos, hacer frente a esos problemas. En este

## 1328 langile kalera EEE bidez EAEn abuztura arte

- 2009ko abuztuaren 31ra arte Euskal Administrazioak 1.783 espediente baimendu ditu (aurkeztu diren espedienteen %95), 31 ezeztu ditu, eta 63tan aurkezleek atzera eman dute.
- Eraginpeko langileen kopurua 50.000 (49.697) izan da.
- Espediente-motari dagokionez, etendura-espedienteen eraginpeko langileen kopurua 47.374 izan da, murrizketa-espedienteen eraginpeko langileak 995, eta amaiera-espedienteen eraginpeko langileak 1.328. Beraz, Lan Sailak ontzat eman ditu 1.328 langile kalera bidaltzea.
- Sektoreka, espedienteen kopururik handiena Industrian bildu da (%72), eta gero Zerbitzuetan (%19).

sentido, la militancia de ELA está haciendo un gran esfuerzo para intentar frenar esta sangría en las empresas, para defender el empleo y las condiciones de trabajo.

Debemos ser enormemente didácticos y ser capaces de explicar al conjunto de la clase trabajadora lo que está pasando, razonar y motivar a nuestra gente, que no tenemos que olvidar que es la inmensa mayoría de esta sociedad.

Hay que ganar el debate social y condicionar otras políticas.

## Patronala langabeziaren xantaiaz baliatzen da, lan-baldintzak argaltzeko

**-¿Cuál es la fórmula para hacer frente a la patronal?**

-Hay que organizar a la gente. Siempre y en cualquier situación. Eso es el sindicato: de una manera organizada vencer la insolidaridad y defendernos colectivamente.

Estamos metidos en una pelea que podemos ganar. Se puede hacer frente a la patronal en aquellas empresas donde hay sindicalización, donde estamos organizados. La patronal sólo se frena ante un poder sindical organizado; es cuestión de fuerza.

**-Organización, palabra clave.**

-Efectivamente. Para condicionar esas estrategias empresariales es imprescindible estar organizado. La negociación de un ERE, por poner un ejemplo, no es una simple gestión administrativa; es mucho lo que está en juego.




Hay empresas en las que al mismo tiempo que la dirección plantea un ERE de suspensión por caída de ventas quieren imponer un incremento de la jornada en el convenio.

Donde estamos organizados estas cosas no cuelan, les hacemos frente y frenamos los chantajes. Entre otras cosas, porque donde estamos organizados hay referente sindical.

**-ELA ha denunciado por activa y por pasiva que gobierno y patronal van de la mano. La actuacion de los gobiernos vasco y navarro en el tema de los EREs, por ejemplo, es de auténtico escándalo.**

-El 'ERE' más brutal se está realizando con el empleo temporal, en su mayoría en fraude de ley. La gente eventual está siendo echada a la calle sin ningún tipo de indemnización. Esto es así debido a la connivencia de los gobiernos, que están dando cobertura a ese fraude.

Cambian los partidos en los gobiernos pero la alianza con los intereses de la patronal es inquebrantable. En términos generales, las Administraciones autorizan los despidos que pide la patronal. Hay que subrayar el caso navarro: allí el Gobierno aprueba todo.

Esa actitud de connivencia gobierno-patronal permite a los empresarios jugar con las cartas marcadas, hasta el extremo de no tener necesidad de negociar nada porque conocen de antemano el resultado de la resolución del Gobierno.

**-ELA no ve esos brotes verdes que parecen atisbar algunos... En este sentido, ¿qué valoración haces de las medidas adoptadas hasta ahora por los distintos gobiernos para afrontar la crisis?**

-La actuación de los gobiernos es un escándalo. Siguen tratando de eludir su responsabilidad, negándose a cambiar las políticas, y éso nos transfiere el coste de la crisis exclusivamente a nosotros. Y no es de recibo que acabemos pagando algo de lo que no somos responsables.

Los únicos brotes verdes se ven en los accionistas y directivos de la Banca. Mientras prestan con intereses de usura tienen dinero más que suficiente para financiar jubilaciones doradas a sus dirigentes y financian *informes* que recomiendan extender la precariedad para el conjunto de la clase trabajadora.

Los gobiernos no quieren enfrentarse a los privilegiados. Recortes presupuestarios, fiscalidad regresiva, dar a la patronal el ajuste de empleo que pide... El dinero público se orienta a empresas y Bancos.

## Sindikatua sendo eta antolatuta dagoen enpresetan aurre egin dakioke patronalari

**-Durante años ELA ha ligado fiscalidad y modelo de sociedad. Sin embargo, parece que ha tenido que llegar la crisis para que algunos se den cuenta de lo nefasto de unas políticas fiscales que no han hecho otra cosa que bajar los impuestos a los que más tienen y a las rentas del capital. La respuesta, curiosamente, no ha sido dar marcha atrás... ¿Qué valoracion hace ELA del debate sobre fiscalidad al que asistimos en los últimos tiempos?**

-Hay que analizar los hechos, no las palabras. La propuesta de Zapatero de subir ciertos impuestos para frenar la caída de los ingresos es profundamente regresiva; las rentas de capital –cuando de facto no defraudan– quedan fuera de la progresividad que sí tienen las rentas de trabajo. Hay que recordar que fue él quién aprobó esa medida. Para ZP es de izquierdas tanto una cosa como la contraria; la realidad, sin embargo, es que ésta es la política de la derecha de siempre.

Hemos exigido a las Haciendas vascas que no hagan seguidismo de esa política

pero, más allá de elementos anecdóticos, el acuerdo sobre política fiscal y presupuestaria es total entre PNV, PSE, PP, UPN y PSN. Ninguno está dispuesto a discutir el fondo de la fiscalidad.

En las Haciendas vascas se ha utilizado el Concierto y el Convenio para desfiscalizar las rentas altas, empresariales y de capital y no perseguir el fraude. Es muy difícil hacer una política fiscal más antisocial. Y no quieren dar marcha atrás.

## Euskal ogasunak Ekonomia Itunaz eta Hitzarmenaz baliatu dira errenta handiak, enpresarienak eta kapitalarenak desfiskalizatzeko, eta iruzurra ez zigortzeko. Oso zaila da politika fiskal antisozialagoa egitea

**-Ahora hay un debate sobre el *blindaje* del Concierto... ¿Cuál es el punto de vista de ELA sobre esta cuestión?**

-ELA defiende la capacidad normativa plena en muchas más materias que el Concierto. Pero lo del *blindaje* es una cortina de humo para que no se hable de cómo se ha utilizado.

La CAPV tiene 6,1 puntos menos de presión fiscal que la media de la UE (5.300 millones de pérdida de recaudación) y 3,4 respecto a la del Estado (3.100 millones). En Navarra, por su parte, son 7,3 puntos menos que la UE y 4,6 con el Estado. Nuestros neoliberales resolvieron las *vacaciones fiscales* rebajando la fiscalidad a todas las empresas. La política fiscal en tiempos de crecimiento ha sido insensata.

Esta es la política de la derecha. La que se ha hecho y la que quieren seguir haciendo.

**-ELA ha denunciado hasta la saciedad que la patronal utiliza la crisis para meter miedo a la clase trabajadora y salir reforzada de la misma. ¿Crees que habrá otra reforma laboral?**

-Si algo sabe la patronal es sacar provecho de las crisis. Ya lo hizo en 1992 y 93, imponiendo discriminaciones, dobles escalas... Ahora quiere lo mismo; quiere empeorar las condiciones de trabajo.

Vuelven de nuevo con la necesidad de hacer otra reforma laboral, esta vez para –dicen– acabar con la dualidad contractual entre temporales e indefinidos. Utilizan la temporalidad y el paro para profundizar en la desregulación y ganar más poder y más dinero.

¿Otra reforma? Zapatero –a los hechos hay que remitirse– no ofrece ninguna credibilidad; utiliza un discurso *izquierdista*, pero su práctica, como en el caso de la fiscalidad, es a favor de los de siempre.

Lo primero que hay que afirmar es que un incremento en la flexibilidad no genera ni un solo puesto de trabajo; y lo segundo, que CiU, PP y PNV en Madrid están exigiendo en el Congreso lo mismo que pide la Patronal. Quieren dar continuidad a un sistema que garantice el beneficio fácil explotando a la gente cada vez más. Ese es el *modelo* español.




El sindicalismo español persigue que por medio del Boletín Oficial se le reconozca el monopolio representativo y de negociación. Está por ver si el *diálogo social* español no se termina poniendo al servicio de éso, bien sea dando cobertura a una reforma laboral o a la reforma de la negociación colectiva, para centralizarla.

**-La única alternativa a la situación actual de gobierno, patronal y sindicatos estatales -UGT y CCOO- es potenciar el denominado diálogo social. ELA, sin embargo, sigue apostando por la movilizacion para cambiar las cosas.**

-Lo que han venido a llamar *diálogo social* es una perversión. Dar fotos a Gobiernos y Patronal a cambio de ningún contenido. Cada vez más se parece al Sindicato Vertical, en el que el poder político decide quién y cómo se representan los intereses de los/as trabajadores/as.



**Presentación de la nueva campaña de la mayoría sindical. ELA recogerá 150.000 firmas en apoyo a nuestro decálogo contra la crisis**

La patronal está encantada. Siempre hay sindicatos dispuestos a firmar lo que les echen. ¿Qué lo justifica? Que comparten modelo social y político, y que éso hay que hacerlo antidemocráticamente, contra la mayoría sindical.

Un *diálogo social* con reducciones en los Presupuestos, con límite a la deuda, sin que se discuta la fiscalidad, con reducción de gasto en salud laboral del 8%, con todo el ajuste de empleo que pide la patronal concedido... ELA nunca llamará *diálogo social* a éso. Los contenidos no se corresponden con la utilización de ese término.

## Sindikatuak ezin du begiratu beste aldera, aurre egin behar dio oraingo egoerari, eta baita egoera horren errudunei ere

**-¿Qué objetivos reales tiene ese *diálogo social*?**

-Los mismos que en Navarra, pero en la CAPV, en contra de la mayoría sindical.

En Navarra van por el enésimo Plan de Empleo, pero lo único que se cumple es el dinero público que llega a las organizaciones. Día sí y otro también no dejan de aparecer en los periódicos las millonarias cifras que se reparten por participar en ese circo mediático.

En la CAPV, ese *diálogo social* va a tener un componente netamente político, igual que el pacto PSE-EE con el PP: dar cobertura sindical a la involución en materia de autogobierno, eliminando cualquier atisbo de regulación propia, centralizando todas las materias (formación, salud laboral...) y dando al Estatuto la lectura que siempre quiso el Estado (políticas activas...).

El otro objetivo consiste en colgar del presupuesto público la financiación de los sindicatos. La Administración *renun-*



*cia* a competencias que debería desarrollar para *cederlas* y que, en régimen de monopolio, las gestionen CC.OO, UGT y la Patronal.

## Malgutasun handiagoa emateak ez du sortuko ezta lanpostu bat bera ere

**-ELA denuncia y tiene alternativas a la situación actual. Lo demostró con la huelga general y continúa haciéndolo con la actual campaña que va a llevar a cabo con la mayoría sindical. ELA planea recoger 150.000 firmas en apoyo a nuestras propuestas. ¿En qué consiste esta nueva campaña?**

-Visto lo visto, la principal conclusión que sacamos de lo sucedido en los últimos años y de la situación en la que nos encontramos es que no va a haber cambios sin movilización social, y que el sindicato no puede ni debe mirar para otro lado. En definitiva, que la crisis nos da la razón a golpes.

Convocamos la huelga general y socializamos nuestras alternativas. El tiempo transcurrido confirma que la alternancia de partidos en los gobiernos no supone ningún cambio en las políticas. Nuestro objetivo, por tanto, es ganar el debate social para condicionar otras políticas. De otra manera no es posible.

Va a haber debate social, les guste o no. Y ese es el objetivo de la campaña que hemos puesto en marcha. Hemos elaborado un decálogo de medidas para responder a la crisis y vamos a recabar firmas en apoyo de esas medidas.

**-Recuérdanos esas medidas.**

-Realizamos propuestas en relación al empleo, la fiscalidad, unos presupuestos con mayor gasto social para hacer frente a las necesidades sociales, más democracia y participación social en las cosas públicas, porque nos afectan y nos importan... Y, claro está, defender instrumentos económicos y políticos para decidir desde nuestro país. La política no nos es ajena, sería una estupidez.

**-Con la que está cayendo, ¿es posible hacer negociacion colectiva?**

-Es imprescindible. La manera más eficaz que tiene el sindicato para ayudar a salir de esta situación es reivindicando mejoras salariales, haciendo mejor negociación colectiva.

Hay que recordar unas pocas cosas para no dar palos de ciego y saber que nos toca aprender a defender nuestros intereses. En primer lugar, que no se cambia nunca salarios por empleo. Es completamente falso. Entrar en ese juego acaba siempre con más beneficio empresarial.

En segundo lugar, que la negociación colectiva regula las condiciones de quienes tienen empleo. En tercer lugar, que los salarios disputan espacio a los beneficios y que éstos han sido los responsables de la crisis, por su comportamiento especulativo.

Si se deprimen los salarios la recesión será más profunda. Hay que reivindicar salarios, eliminar discriminaciones. Hay que seguir dando toda la prioridad a la negociación colectiva.

**-Para finalizar, ¿qué mensaje te gustaría hacer llegar a la militancia de ELA?**

-ELA no va a sustituir la reivindicación por fotos y financiación pública. Y ese dar la cara, estar a la ofensiva, sólo puede sostenerse con militancia.

Yo soy optimista porque estoy convencido de que juntos y organizados podemos lograr muchas cosas. Somos mayoría.

## Elkartasunaren militanteak

**-Argi dago krisi hau erronka ere badela sindikatuarentzat, barrura begira. Nola dago ELAren barne-antolamendua?**

-Kongresua 2008ko azaroan izan zen, eta badirudi askoz lehenago izan zela. Harez geroztik gauza asko eta asko gertatu dira, ez dugu etenaldirik izan. Gure antolamendua ederki dago. Gai nagusiak ez ditu inork zalantzan jartzen: sindikatuaren autonomia, autofinantzaketa, posizio politikoa eta soziala, eta negoziazio kolektiborako antolamendu-eredu eraginkorra —enpresak sindikalizatuz—. Hortik aurrera, ELAn askotan eztabaidatzen dugu eraginkortasunaz, edo bestela esanda, aipaturiko helmugetara nola iritsiko garen hobeto.

Krisi honek, hainbat alderdi gogor izan arren, antolamendu-aukerak ere eskaintzen dizkigu, eta aprobetxatu beharra dago. Jendeak sindikatua behar du, eta horregatik ondo-ondoan egon behar gara. Ez dakigu zer gertatuko den, inork ere ez daki. Baina dakiguna zera da, zein diren sindikatuaren eginkizunak: Gidatzea; proposatzea; aurpegia ematea; militanteak suspertzea... Ianik gogorrena egiteko prestatzea: enpresetan egin behar dena. Gure antolamendu-eredua horri begira dago beti.

**-Alde horretatik, zein da sindikatuaren erronka nagusia?**

-Ez dago zalantzarik: militanteak. Militante prestuak behar ditugu, atal sindikaletatik eragin ahal izateko. Enpresetan benetako oinarririk izan gabe, ez dago sindikaturik; eta militanterik gabe ez dago benetako oinarririk. Militanteak premiazkoak bezain urriak izaten dira, horregatik arretaz zaindu behar ditugu. Sindikatuaren lana, eraginkortasun-maila... dena dago militanteen esku. Merezi duten arreta ez badiegu ematen, hor hasiko gara galtzen. Antolamendu Plana horretarako dago pentsatuta: militanteak egituran txertatu, haiei prestakuntza eman, eta horren ondorioz, eragin sindikala areagotu. Langileek lantokian aurkitzen duten lehenengo erreferentzia sindikala militantea da. Sindikatuan murgildutako militanteak sindikatuaren agenda idatziko du dagoen tokitik bertatik. Benetako militante bat elkartasun-sareak osatzeko eta hedatzeko gauza izango da dagoen tokian dagoela.



# "El Estado está en involución y le vale todo para conseguir sus objetivos"

**-¿Cuáles son los elementos más relevantes de la coyuntura política?**

-El Estado está en involución, y utiliza todo para sus objetivos. Incluso la instrumentalización de la violencia, para ilegalizar opciones electorales y poder ser *mayoría* allí donde no lo es. Es el *pacto de Estado*. Ellos suman sin ningún problema y trabajan para que cualquier otra suma no se pueda producir.

Este Estado es profundamente antidemocrático y cada vez más autoritario. Sucesos lamentables como las últimas detenciones (Otaegi, Rafa Díez...) las prohibiciones de las fotos de personas presas o el recurso a *jueces de encargo* para obtener *legitimidad* judicial son un buen botón de muestra. El Estado, hay que insistir en ello, es demasiado evidente para confiar en él.

**-El nacionalismo institucional ha sido desplazado del Gobierno.**

-Si, pero una cosa es la gobernabilidad y otra muy distinta la apuesta estratégica. En este sentido, fue muy clarificadora la oferta que el PNV lanzó al PSE-EE tras las elecciones, ofreciendo un pacto global de *normalización institucional* y dando por válida la representación política que existe en el parlamento de Gasteiz, es decir, sin la llamada Izquierda Abertzale.

Las propuestas del nacionalismo institucional, antes en el Gobierno y ahora fuera de él, compiten con quienes buscan en sede política el aprecio de los poderes económicos. Basta ver la fiscalidad, su obcecación por el superávit, la exigencia en Madrid de una nueva reforma laboral con el PP y CiU... Y ese poder económico, también el de Hego Euskal Herria, ha dado absoluta normalidad al cambio político.

Nosotros no esperábamos otra cosa. La alianza de la patronal y del capital no es con un partido, es con los Gobiernos; les da igual quien sea el que lo ocupe.

**-En Navarra la situacion es distinta, que no mejor...**

-En Navarra existe un régimen que conforman UPN, PSN, Patronal, el OPUS, CC.OO, UGT y la prensa del Régimen. Afecta a todo, empezando por la exclusión de quienes no pensamos como ellos.

El PSN marcó sus límites claramente y desde entonces acompaña a UPN. Un pacto que dirige y consolida la



## Borroka egiteko bide zibil eta demokratikotik oztopoak kendu, indarrak batu eta erantzuteko gure gaitasuna areagotu behar dugu

visión más reaccionaria de la derecha Navarra. Allí, también el sindicalismo español ha decidido dar total cobertura a ese pacto.

**-En este contexto, ¿qué plantea ELA?**

-En primer lugar, que tenemos plena legitimidad para entrar en el debate político. El *pacto de Estado* tiene apoyos evidentes en la patronal y en CC.OO y UGT. La justificación de llamar *diálogo social* a lo que hacen hay que encontrarla en éso; en dar cobertura a esa involución, acusándonos a los demás de que *hacemos política*.

Por otro lado, hay que superar definitivamente la fase de lucha armada por parte de ETA. Esta organización se ha convertido en una gran excusa que facilita el inmovilismo político. El Estado no va a cambiar porque ETA desaparezca, pero es evidente que el debate político y social será más fácil.

Esa superación, por otra parte, debe ser *ordenada*, dialogada. Hay que seguir defendiendo que es imprescindible negociar, de la misma manera que, en nuestra opinión, no es de recibo simultanear resolución de conflicto armado y político.

Por lo demás, no hay nada que hacer con un Estado de esta naturaleza desde la aversión a la confrontación democrática y desde la división estratégica de las fuerzas abertzales sobre objetivos y medios. Hay que eliminar estorbos para la lucha civil y democrática, sumar y confrontar. Creemos que esa es la única oportunidad, y la multitudinaria manifestación del pasado 17 de octubre en Donostia lo puso en evidencia muy claramente. El soberanismo es mayoría, si suma.

Como sindicato, ELA seguirá manteniendo su autonomía para defender, en cualquier coyuntura, los intereses de clase. Unos intereses que nunca vamos a relativizar, porque el movimiento soberanista tendrá futuro en la medida que sea social.

## Gehiengo sindikala, urratua

**-Zenbaitetan salatu dugu alternatiba politikoa baino alternantzia izan dugula. ELA, Administrazio Kontseilutik kanpo utzi dute; PSE-EE, PP eta PNV alderdien Legebiltzarreko taldeak CCOO sindikatuaren alde agertu baitira. Politikariei, orokorrean, gehiengo sindikalak bost axola zaizkie.**

-EITBn gertaturikoa hainbat modutara uler daiteke. Lehenengoa: gobernu guztiek kontrolpean izan nahi dituzte komunikabideak, hori lotsagarria bada ere.

Bigarrena: parlamentu batek esparru sindikaleko ordezkaritza eraldatu du, hori muturra bidegabe sartzea bada ere.

Demokrazian gehiengoak errespetatzen dira, zeinen aldekoak diren begiratu barik. Baina, askotan salatu dugun bezala, demokrazia hau benetakoa baino gehiago itxurazkoa da. Eta EITBn gertatu dena —gehiengo sindikala alde batera uztea— oso adierazgarria da, gure sistema politikoak dituen gabezia demokratikoen adierazgarria, alegia.

# "El Gobierno de Navarra está a los pies de la patronal "

MITXEL LAKUNTZA, COORDINADOR DE ELA EN NAVARRA, DENUNCIA LA SUMISIÓN DEL GOBIERNO A LOS INTERESES DE LA PATRONAL. SOLO HA RECHAZADO 1 ERE DE EXTINCIÓN Y 4 DE SUSPENSIÓN. 1.185 TRABAJADORES/AS HAN IDO A LA CALLE



› N. I.

**-En Navarra, ¿qué reflejo está teniendo la crisis sobre el empleo?**

-La consecuencia más trágica de la actual crisis económica es el rápido y notable incremento del desempleo. Ya hay más de 38.300 personas en paro en nuestra comunidad, y ése es un problema que exige una atención preferente e inmediata.

La preocupación de muchas empresas, acostumbradas estos últimos años a beneficios históricos, no es cómo aminorar los efectos de la crisis, mantener el empleo o la vinculación del trabajador y su conocimiento a la empresa. El objetivo sigue siendo el mismo: mantener el beneficio sin esfuerzo y compromiso ninguno. Muchas empresas ven en esta crisis una oportunidad para ajustar plantillas: la coyuntura permite despedir fácilmente y de forma más barata.

**-¿A qué se debe este incremento del paro tan rápido?**

-En parte se explica por el alto nivel de eventualidad, el doble de Europa. Otra parte importante de los trabajadores/as que han perdido su empleo lo han hecho vía ERE. Las empresas se han lanzado en carrera para reducir plantillas utilizando esta fórmula, que les permite despedir colectivamente siempre que se demuestren causas económicas y productivas.

La práctica dice, sin embargo, que el Gobierno de Navarra -en concreto, el Departamento de Trabajo del señor Roig- está aprobando prácticamente la totalidad de los expedientes presentados. En lo que va de año han sido autorizados 432 expedientes de suspensión (se va al desempleo temporalmente pero no se pierde el empleo) que han afectado a 13.385 trabajadores/as y 45 expedientes de rescisión (despidos directos) que, con el visto bueno del Gobierno, han mandado a la calle a 1.185 trabajadores/as.

Los expedientes no aprobados han sido únicamente 4 de 432, en el caso de los de suspensión, y sólamente uno, en el caso de los de rescisión.

**-¿Qué lectura hace ELA de este hecho?**

-Se demuestra lo que hace mucho venimos denunciando: la sumisión del poder político a los intereses de la patronal. No les importa la situación ni productiva ni económica en la que se encuentre la empresa. Aprueban todo: expedientes que no han contado con el visto bueno del comité de empresa; expedientes presentados por empresas saneadas financieramente y que, incluso, siguen generando beneficios...

En los EREs, el Gobierno ni valora ni acepta argumento alguno que provenga de los sindicatos. Dejan a los trabajadores en una situación de desventaja e indefensión absoluta, donde se concede a las empresa patente de corso para despedir a su antojo. Estamos hablando de algo tan grave como es el ataque de una institución pública al derecho y las garantías de un proceso de negociación.

## Erregulazio Espedienteetan Gobernuak ez du aintzat hartzen, ezta onartu ere, sindikatuen argudiorik

**-¿Cuál es la alternativa de ELA?**

-Es urgente un cambio de las actuales políticas para mantener el empleo. En Europa se están llevando a cabo fórmulas de reparto del trabajo, reducciones de jornada pactadas, etc... que explican por qué en estos estados el desempleo no se ha desorbitado, como sucede aquí.

Las decisiones tomadas por este Gobierno en los últimos meses son una suma de desaciertos, mera propaganda. Los 65.000 empleos que se anunciaban con el Plan Navarra 2012 se han quedado en 2.500. Más de lo mismo con los 8.000 puestos de trabajo que iban a generarse en base el acuerdo suscrito con UGT y CCOO para subvencionar a empresarios. Este acuerdo se ha concretado, *sorpresivamente*, en 250 empleos.

Una vez constatada la ineficacia de las medidas planteadas por este Gobierno, además de pedir un giro en esa política, es imprescindible que el señor Roig y su Departamento adopten un compromiso firme que permita afrontar los procesos de negociaciones de EREs con garantías. Lo tienen fácil: se trata únicamente de que no se aprueben los EREs que no cuenten con un acuerdo entre empresa y trabajadores/as.

### Total EREs»

| Suspensión | | Rescisión | |
|---|---|---|---|
| Presentados | Aprobados | Presentados | Aprobados |
| 436 | 432 | 46 | 45 |

# "Gure jendea aspalditik dago krisian eta egoera hori iraultzeko borrokatzen dugu"

IGOR EIZAGIRRE ETA MARI KRUZ ELKORO, ELA-ZERBITZUAK FEDERAZIOKO IDAZKARI NAGUSIA ETA ANTOLAKUNTZA IDAZKARIA, HURRENEZ HURREN



› GORKA QUEVEDO

**ELA-Zerbitzuakek bere 6. kongresua egingo du azaroaren 26an Iruñan, *Antolatuz, borrokatu* leloarekin.** Bertan parte hartuko duten 180 ordezkariek ponentzia eztabaidatu, bozkatu eta Batzorde Iraunkor berria aukeratu beharko dute. Federazioko idazkari nagusi Igor Eizagirre eta antolakuntza idazkari Mari Kruz Elkoro kongresu honen inguruan mintzo dira.

**-Kongresuaren prestakuntzan zaudete uneotan buru-belarri. Nola heltzen da ELA-Zerbitzuak kongresu honetara?**

-Hazten ari den federazioa gara. Azken kongresuko datuekin konparatuta 2.755 afiliatu gehiago gara; %12,32a hazi gara, hain zuzen. Hauteskundeetan ere gora egin dugu nabarmen; %1,04. Iragan urtea inoizko urterik onena izan zen afiliaziori dagokionez, 4.000 altatik gora izan genituen. Errealitateak erakusten digu lan ona egiten ari garela, eta aurrean ditugun erronkak ere handiak izan arren, bide onetik goazela.

**-Erronka handietaz mintzo zarete. Zeintzuk izango lirateke nagusiak?**

-Lehen helburua federazioan daukagun prekarietate eta diskriminazio maila handiarekin amaitzea da. Horretarako jakin badakigu gogor borrokatu beharko dugula. Azken urteetan egon diren gatazka guztiak aztertu besterik ez dago ELAren jarduna zein den ikusteko. Borroka guztietan egon gara, ez dago ELA egon ez den gatazka bakar bat ere ez. Eta, kasu askotan, gainera, bakarrik.

**-Nola gainditu prekarietate eta diskriminazio maila altu horiek?**

-Langileok gure lan baldintzak hobetzeko dugun zutabe nagusia negoziazio kolektiboa da. Datozen urteetan negoziazio esparru berriak zabaldu behar ditugu, eta egun zabalduta daudenetan sindikalizazioan sakondu. Sektoreko azken langileraino heldu behar gara. Ez da erraza, noski. Gure federazioan oso sektore prekarioak eta sakabanatuak daude, baina ezinbesteko erronka da.

**-Lan horretan, zein garrantzia du antolakuntza sendo bat izateak?**

-Militantziarik gabe ez dugu ezer lortuko. Gure erronka antolakuntza da. ELAren ahotsa azken txokoraino helaraziko duten militanteak behar ditugu. Antolakuntzan hobetzeak emaitzak dakar, eta horrek, ezinbestean, langileon lan baldintzak hobetzea.

**-Negoziazio kolektiboa langileok lan baldintzak hobetzeko dugun tresna eraginkorrena da. Zeintzuk dira negoziazio kolektiboan ditugun erronkak?**

-Negoziazio kolektiboa gure eredu sindikalaren bizkarrezurra da, aberastasunaren banaketa lortzeko eta enplegu eskasa borrokatzeko dugun tresna. Lan eskasa eta diskriminazioa desagerrarazteko borroka egin behar dugu, soldata eta lan denbora duinen bidez. Hori da gure erronka.

**"Luchar por la eliminación de la precariedad y la discriminación; conseguir un reparto justo de la riqueza a través de unos salarios dignos y tiempos de trabajo; exigir a la patronal que cumpla la ley en materia de salud laboral. Estas son nuestras prioridades"**

Datozen urteetarako helburu eta asmo ugari ditugu: hitzarmen sektorialen hobetzea; Estatu mailako sektoreetan lan esparruak irekitzea, Estatu mailako hitzarmenak prekarioak direlako; Kontsumorako Prezioen Indizearen gainetik nabarmen egongo diren soldata igoerak eskatzea –800 euro kobratzen dituen langile bati KPIari lotutako soldata igoerak eskatzea burla egitea da–; langileok jai egunetan atseden hartzeko duten eskubidearen defentsan ere gogor borrokatuko dugu; lan osasunean ere urratsak eman behar ditugu; negoziazio esparru berrien irekierari eutsi behar diogu... Ikusten den bezala, badugu bai lana!

**-Askotan adierazi duzue ELA-Zerbitzuakeko langileak aspalditik daudela krisian: soldata baxuak, lanaldi luzeak, azpi-kontratatzioa...**

-Bai, agerikoa da hori. Gurean krisia aspalditik dago txertatuta. Zentzu honetan, ELAtik salaketa bat egin beharrean




gaude. Prekarizazioa ez da etorri bakarrik enpresa pribatutik. Administrazioak ere langileon lan baldintzak eskastu ditu. Lotsagarria da duten erantzukizunari nola egiten dioten muzin. Udal, Foru Aldundi eta Gobernuetako arduradun asko langileon lan baldintza eskasen errudun zuzenak dira.

**“Nuestra gente hace tiempo que está en crisis y luchamos para cambiar esta situación”**

**-Ponentziak behin eta berriz aipatzen du militantziaren garrantzia. Zer esango zeniokete gure jendeari?**

-Lehenik eta behin, gure militantziaz oso harro gaudela. Hau da bizi dugun egoera eta errealitatea aldatzeko dugun bide bakarra: guztia ematen duen militantez osatutako sindikatua. Bide honek orain artean oso emaitza positiboak eman dizkigu, eta etorkizunean ere handitzen eta hazten joatea espero dugu. Militante berriak lortu eta ditugunen inplikazioa jarraitzeko borrokak ez du atsedenik.

**-Nola aurrikusten dituzue hurrengo lau urteak?**

-Garai gogorrak baina interesgarriak ditugu aurretik, esparru berriak irekiko ditugulako. Gero eta hobeto antolatu beharra daukagu langileon lan baldintzak hobetzeko. Oso pozik gaude azken urteetan lortu dugunarekin. Borrokaren bidez lorpen eta urrats handiak eman ditugu: administrazioko azpikontratekin, merkataritzan, errepideetako garbikuntzan, jangeletan, Estatu mailako prekarietatearen kontrako borroketan... Asko egin dugu, baina asko dugu oraindik egiteko.

**-Patronalak, bai pribatuak zein publikoak, egungo egoera ekonomikoaren aitzakia erabiltzen du langileon lan baldintzen kaskartzea justifikatzeko. Zer esan horren aurrean?**

-Egungo egoerak ezin ditu ezkutarazi gure eskakizunak: aurre egin behar diogu patronalaren diru-goseari eta xantaiari. Gogor borrokatu behar dugu enplegu-suntsiketaren aurka, soldata-igoera nabarmenak eta lanaldiaren murrizketak eskatuz. Badago bai horretarako tartea. Langileok argi izan behar dugu soldatek ez dutela eragin krisia. Alderantziz baizik, soldata duinak aldarrikatzea eta langileon lan baldintzak nabarmen hobetzea krisiari aurre egiteko dauden ezinbesteko bi neurri dira.

Zentzu honetan lan ideologikoa egin behar dugu gure militanteekin borrokari eusteko eta patronalak ohikoak dituen argudio alarmistei aurre egiteko.




# Balance positivo en la negociación colectiva

**Frente a un claro impulso de los valores neoliberales, Igor Eizagirre y Mari Cruz Elkoro reafirman la centralidad que debe adquirir la negociación colectiva** frente a otros modelos sindicales que defienden y propugnan la concertación social. “La negociación colectiva es para ELA la columna vertebral de nuestro modelo sindical. Es el instrumento que tenemos para lograr una más justa distribución de la riqueza y para mejorar las condiciones de trabajo de la clase trabajadora”.

Los responsables de ELA-Zerbitzuak hacen un balance positivo de estos cuatro años. Han sido numerosos los conflictos y movilizaciones que ELA ha liderado. Algo lógico en una federación que se caracteriza por el alto nivel de precariedad que existe en la mayor parte de los sectores, que afecta principalmente a dos colectivos: jóvenes y mujeres. “No es casual la gran conflictividad que hemos mantenido en los últimos años. En buena parte de los conflictos las protagonistas han sido las mujeres. En la mayoría de las ocasiones han sido huelgas largas, duras. Hemos tenido que pelear contra todo y contra todos, porque si algo hemos aprendido es que a nosotras y nosotros nadie nos regala nada. Todo lo que hemos conseguido ha sido producto de nuestras luchas, nos hemos organizado y peleado: ésta es la clave”.

**Han sido numerosísimos los conflictos desarrollados estos últimos cuatro años.** “Hemos desarrollado negociaciones que podemos calificar de exitosas.. Mención especial requiere la lucha por la equiparación de salarios en los colectivos de limpieza subcontratados por las administraciones. Hemos logrado quebrar la voluntad de Eudel, consiguiendo romper con la discriminación en muchos ayuntamientos: Irún, Hondarribia, Errenteria, Zarautz, Eibar o Zornotza. También el trabajo desarrollado en las Diputaciones de Gipuzkoa y Bizkaia o en los Juzgados ha sido excelente”.

“Eroski de Tudela, Jardineros de Basauri y Tudela, Seguridad comisaría de Erandio, Metro Bilbao, Balneario de Orduña, Aeropuerto de Loiu, Sidras Eva, Telemarketing, Perfumerías de Gipuzkoa, Comedores escolares... Son ejemplos de lucha y dignidad. Sin olvidar, por supuesto, tanto por su duración y crudeza, el conflicto de Sabeco Rentería, cuyas trabajadoras cumplieron el 13 de octubre un año en huelga”.

**Igor Eizagirre y Mari Cruz Elkoro quieren agradecer a la militancia su enorme trabajo.** “Para llevar adelante todos estos conflictos ha sido necesaria la implicación de todo el sindicato, y en especial de la militancia y la afiliación. Hemos desarrollado negociaciones que podemos calificar de exitosas. Una buena organización y la planificación de un largo trabajo, precedidas muchas veces de movilizaciones, nos ha permitido obtener convenios con contenidos muy buenos en el Comercio Textil de Araba, Limpieza Viaria de Gipuzkoa y Comercio Alimentación de Nafarroa y comercio y hostelería de Bizkaia. Además, hemos logrado desbloquear la negociación del Comercio de Gipuzkoa, donde Adegi tenía bloqueados convenios desde el año 2000”.

“Nos espera un periodo apasionante –añaden–. Seguiremos abriendo ámbitos de negociación. Además de ser el referente para conseguir la homologación de condiciones allá donde sea posible, tenemos que luchar por abrir ámbitos de negociación para evitar la aplicación de convenios estatales, convenios de miseria que son los que peores condiciones laborales tienen”.

# Etorkizunean bizi gaitezen, Bizi!

ARLO EKONOMIKOA ETA SOZIALA UZTARTZEKO ASMOZ SORTU DUTE BIZI! KOLEKTIBOA IPAR EUSKAL HERRIAN




Mattin Ihidope eta Marie Larzabal, Bizi! mugimenduko kideak

› GORKA QUEVEDO

**Gai ekologikoak eta sozialak elkartu asmoz Bizi! mugimendua sortu berri dute Ipar Euskal Herrian.** Berotegi efektuari buruz abenduan Kopenhagen egingo den goi bileraren karira sortutako ekimen honek hamaika ekitaldi antolatu ditu azken asteetan. Lurraren eta gizakion geroa jokoan dagoela diote; horregatik mugitzea erabaki dute. Bizi, gainera.

Dagoeneko hasiak gara sentitzen klimaren berotzearen ondorio lazgarriak. Klimak sortzen dituen hondamendiekin agertzen zaizkigu, besteen artean, ondorio horiek. Ez badugu ezer egiten egoerak okerrerantz joko du. Klimaren bilakaerari buruzko Gobernu Arteko Aditu Taldea osatzen duten 2.500 zientzilariek berriki atera duten azken txostenak nabarmentzen duenez, ez badugu gaurdanik ezer egiten, egoera kontrolaezina eta konponezina bihurtu liteke.

## Bizi! es un colectivo creado en Iparralde para concienciar a la gente sobre las graves consecuencias del cambio climático

Egoera honengatik kezkaturik eta egun planetak eta gizadiak aurrean dituzten erroka handiei erantzun zuzena eman asmoz, hainbat lagunek Bizi! mugimendua sortzea erabaki dute Ipar Euskal Herrian. Mattin Ihidope eta Marie Larzabal Bizi! osatzen duten kideetako bi dira. Era honetako gizarte mugimendu bat sortzearen beharraz eta garrantziaz ohartarazten dute. "Ipar Euskal Herrian ez zegoen abertzaletasuna eta altermundialismoa uztartzen dituen horrelako espaziorik. Ekimen hau bi urtez lagun ugarik egin dugun hausnarketa sakonaren ondorio da. Argi geneukan arlo ekologikoa eta soziala elkartu behar direla, biak batera eraman behar ardatzak direla".

## La cumbre sobre el cambio climático que se celebrará en diciembre en Copenhague es el eje sobre el que giran todas las acciones del colectivo

**Abenduaren 7tik 18ra bitartean berotegi efektuari buruzko goi bilera izango da Kopenhagen (Danimarka).** Zita garrantzitsu horren karietara sortu da Bizi!. "Azken urteetan egindako lanari eta hausnarketari segida eman eta guztia kanpaina baten inguruan batzearen beharra ikusi genuen. Azken finean goi bilera horretan gure planetaren etorkizunerako eta biziiraupenerako funtsezkoak diren gaiak jorratuko dira, eta herritarrak horren garrantziaz sentsibilizatzea nahi dugu".

Kopenhageko goi bilerari begira sortu da Bizi!, baina Kopenhagetik haratago proiektuak jarraituko duenaren esperantza dute. "Horren ostean erabakiko dugu zer egin, baina garrantzitsua izango zen orain arte egindako lanak jarraipena izatea".

Klimaren aldaketak munduko bazter guztiei eragiten die. Kontuak kontu, arazo global honi tokian tokiko erantzuna ematearen garrantziaz ohartarazten dute Bizi!ko kideek. "Gure ekintza eremua Ipar Euskal Herria da. Laborantza Ganbararen arimari jarraiki, bertako eredu baten alde lan egitearen beharra

ikusten dugu, hemengo herritarren arazoei eta beharrei erantzungo dien eredua. Iparraldeko jendea sentsibilizatzea bilatzen dugu, beste modu batera kontsumitu litekeela adierazi nahi dugu. Azken finean, pertsonak irabazien aurretik ezarri behar dira eta elkartasunari lehentasuna eman lehiaketari eman ordez. Produktibitatea, suntsiketa eta gehiegizko kontsumoa utzi behar ditugu Lurraren bizi-iraupena bermatu nahi badugu".

**Los miembros de Bizi! consideran que no es posible plantear otro modelo económico y social alternativo sin que la ecología tenga una gran centralidad**

Berotzearen lehen eraginak agerikoak dira. Mattin Ihidoinek eta Marie Larzabalek egoera honen paradoxaz eta bidegabekeriaz mintzo dira. "Klima aldaketaren eraginak herri pobreenetan agertzen dira gehienik. Hala ere, herri horiek ez dute ardura handiena berotze horretan. Herri aberatsek sortzen dugu berotzea, gure kutsadura eta jasangarria ez den ereduarekin. Ordea, pobreenek pairatzen dituzte ondorioak. Bizitzaren beste alor askotan gertatzen den bezala, txiroek ordaintzen dute aberatsen gehiegikeriak".

Mobilizazioaren beharra. Bizi!ko kideek argi dute mobilizatzea ezinbestekoa dela agintarien politikak aldatzeko. "Gurea herri txikia da. Soilik planetaren mailako herritarren mobilizazioak behartuko ditu gobernuak euren politikak aldatzera. Gure mugimenduak borroka horiek Ipar Euskal Herrian eraman gogo ditu: planetak eta gizadiak aurrean dituen erronka handiei erantzun zuzena emateko ekintzak eta mobilizazioak antolatzeko prest gaude. Hori da gure xedea".

**Desobedientzia zibila, bortizkeria eza eta umorea, ardatzak.** Demoen borroka moldea eredua eta erreferentzia izan da Bizi! mugimenduko kideentzat. "Ekintzak eta mobilizazioak egiteko moldean Demoen segida izan nahi dugu. Desobedientzia zibilaren aldeko hautua egiten dugu, eta umoretik jotzea ahalegintzen gara. Estrategia klandestino eta bortizkeria ekintza oro argiki baztertzen ditugu; gurea desobedientzia zibilaren aldeko hautua da. Ez dugu inolako alderdi politiko edo botere publikoen menpe egon nahi. Azken finean, ibilbide demokratiko bat daukagu gure estrategia eta lanak kontrolatzeko gisan. 'Kide bat, boz bat' da gure oinarria".

# EKIMEN UGARI DATOZEN ASTEETAN

**Abenduaren 7tik 18ra berotegi efektuari buruz Kopenhagen egingo den goi bilkura da Bizi!ren jomuga nagusia.** Gauzak honela, 20 lagun joango dira abenduaren 10etik 14ra Danimarkako hiriburura. Aurretik, ordea, hamaika ekimen prestatu dituzte Bizi!ko kideek. Dagoeneko ekintza asko egin dituzte, eta datozen asteetarako egitarau oparoa prestatu dutela nabarmentzen dute Mattin Ihidopek eta Marie Larzabalek.

"Gure mezuak zabaltzeko jendearengana jotzea ezinbestekotzat jotzen dugu. Eguneroko bizitzako tokietara jotzen dugu, lotura errazagoa egiteko. Esaterako Angeluko hondartzan egindako ekintzaren bidez igandeetan lana ez egitearen garrantziaz ohartarazi genuen. Igandeetan lana egiteak kontsumo gehiago dakar, kutsadura gehiago, besteak beste. Hain zuzen, klima aldaketa eragiten duten faktore nagusienetakoak. Baiona eta Miarritze arteko autobus zerbitzuaren aldeko ekimena ere egin genuen. Baiona-Angelu-Miarritze eskualdean 1,3 lagun baizik ez da ibiltzen auto bakoitzeko. Gaur egun auto gehiegi dago, horrek dakartzan ondorio kaltegarri guztiekin. Sistema horri alternatibak bilatu behar zaizkio. Horregatik ere egin genuen **irailaren 25tik 27ra** Maule eta Baiona lotu zituen bizikleta martxa, kalitatezko garraio publikoaren alde dugun konpromezuari eusteko".

Datozen asteetarako prestatutako egitaraua ere oparoa da. **Urriaren 24an,** larunbata, 16:00tatik aurrera, Baiona Ttipiko Mousseroleseko Ateetan 350 lagun biltzea da erronka. Kopuru hori ez da kasuala. NASAko klimatologo buru James Hansenen arabera, milioikako parteetan, 350 da atmosferak gehienez jasan dezakeen $CO_2$ partikula kopurua, baldin eta Lurraren bizitza bermatu nahi bada. Zoritxarrez, kopuru horretatik oso urrun gaude.

**Bizi! ha organizado numerosos actos para las próximas semanas. La agenda de las movilizaciones se puede conseguir en la página web de Bizi!: www.copenhague2009bizi.org/**

**Azaroaren 6an eta 7an,** berriz, Aldaketa klimatikoari buruzko Foroa egingo da Baionan, Manu Robles-Arangiz Fundazioa, Bizi!, ATTAC, Amis de la Terre eta Survi elkarteen eskutik. Bertan izen handiko adituek hartuko dute parte, beroketa klimatikoa eta Kopenhageko gailurra oinarri hartuta. 'Nola borrokatu beroketa klimatikoa?' izango da erantzuten saiatuko diren galdera nagusia.

**Azaroaren 21ean** festak eta aldarrikapenak bat egingo dute Hazparnen izango den ekitaldian. 20:00tan hitzaldia izango da Ttattola gaztetxean; 'Beroketa klimatikoa zer da? Nola borrokatu?' Bi galdera horiek erantzuten saiatuko dira Hazparnen. Hitzaldiaren ostean, eta gaztetxean bertan, ama-lurraren suntsiketa eta injustizia sozialaren kontrako kontzertua izango da, The Hyenes, Estricalla eta Totem taldeen eskutik.

**Abenduaren 5ean,** larunbata, eta Kopenhageko goi bileraren atarian, manifestazio bat iragarrita dago, mundu mailan egingo den deialdiari erantzunez. Bizi!ko kideek klima berotzearen arazoari erantzun globala emateko nazioartean egin den deialdiarekin bat egiteko asmo irmoa dute. Izan ere, ezin dugu ahaztu **abenduaren 8a** mundu mailako klimaren eguna dela. Agerikoa da Bizi!ko kideek lan mardula egiten ari direla. Etorkizunean bizi gaitezen.






# ZER GERTATUKO ZEN SABECON GREBA EGINGO BALUTE?

› GORKA QUEVEDO

Miseriazko hitzarmena zuten. Makina bat ordu pasatzen zituzten lanean, eta, trukean, hilabete bukaeran jasotzen zuten soldatak apenas gainditzen zituen 700 euroak. Langile gehienak, ia guztiak, emakumeak ziren, eta 'aski da!' esateko ordua zela pentsatu zuten. Antolatuz eta borrokatuz –nola bestela?– mobilizazioei ekin zieten. Aldarrikapen nagusi bat zuten: ezartzen zitzaien Espainia maila mailako hitzarmenaren ordez Gipuzkoako hitzarmena aplikatzea. Miseriazko hitzarmen bati ezetz esan eta bizitza duina eramatearen aldeko hautua egina zuten. Baina, nonbait, eskakizuna gehiegizkoa zen enpresaren jabeentzat. Horregatik, 2008ko urriaren 13an, greban jartzea erabaki zuten.

**Errenteriako Sabeco supermerkatuko langileetaz ari gara.** Orotara 52 langile daude greban: 50 emakume eta bi gizonezko. Ez da erraza greba bat aurrera eramatea. Lan eta antolakuntza handia eskatzen du. Pentsa, orduan, zer izango den urtebete baina gehiago greban egotea. Dena den, Sabecoko langileak ez daude etsitzeko prest. Lehen egunean bezain tinko eta indartsu daude. Sinisten ez duenak aski du ostiral eguerdietan Errenteriara joatea eta Sabecoko langileek astero egiten duten mobilizazioan parte hartzea.

Iragan urriren 16an goizean goiz autobusa hartu eta grebalariak Gasteizera joan ziren. Bertan ehunka lagunen babesa jaso zuten. Langile ugarik euren animoak eta elkartasuna helarazi zieten. Baina, izan zen bai Sabecoko langileen egoeragatik kezkatu ez zenik. Emakundeko arduradunak, esaterako.

**Prekarietateak emakume aurpegia du.** Ez da kasualitatea gurean ematen diren greba luze eta gogor gehienen protagonistak emakumeak izatea. Ariznavarra, hainbat udalerritako garbitzaileak, zaharetxeetako langileak... Hori salatu nahi izan zuten Sabecoko langileek Gasteizen. Grebaren nondik norakoen inguruko dokumentu bat eman zieten Emakundeko ordezkariei, jakinaren gainean egon daitezen. Eskakizun zehatza ere egin zieten: aldiro-aldiro datu eta estatistika hutsak argitaratzen dituen edukirik gabeko erakundea izateari utzi eta behingoz euren eskubideen alde borrokatzen duten emakumeen alde aritzea.

'Zer gertatuko litzateke emakumeek greba egingo balute?' galdetu zuen Emakumendek azken Martxoaren 8an. Errenterian egiten dute. Eta Gasteizen, Zumarragan, Basaurin, Andoainen, Elizondon...

FRANQUEO CONCERTADO
NO 08/129